

#50 / 2024 MAIATZA

# artelka

**HERRESTAN  
GARAMATZAN  
BASAKERIA**

**GEDAR**



— **D**eskribatutakoa bezalako krisi-egoera batean jardutea helburu duen neurri eta estrategia multzoa da gerra-ekonomia: krisi horretan, Kapitalaren premia nagusia ez da irabazi-tasa berrezartzea, baizik eta, lehenik eta behin, kapitalista handien biziraupen indibiduala eta, horiekin batera, botere-bloke geoestrategiko handien eta mundu-hondarrean duten estatus politikoaren biziraupena. Horregatik da gerra-ekonomia bat, lehenik eta behin gaitasun militarrek indartu nahi dituelako aipatutako helburuak ziurtatzeko. Eta proletarioen kontrako gerra ireki bat da, borroka ez baita soilik gainbalioa hobeto banatzeko, baizik eta banatu beharreko gainbalio handiagoa lortzeko

# Edukia

---

**6**

---

**10**

---

**26**

---

**28**

---

**42**

---

## **EDITORIALA**

*Arteka*

## **Gerraren mozkinak**

---

## **ERREPORTAJEA**

Pablo C.

## **Militarismoa eta Kapitala: gastu militarak eta kapitalismoaren behar inperialista**

---

## **IRITZIA**

Eli Irazu

## **Egin kasu Von der Leyeni: presta gaitezen gerrarako**

---

## **KOLABORAZIOA**

Jose Castillo

## **Europar Batasuna gerrarako bidean: suspertze funtsetatik suntsipen funtsetaa**

---

## **HISTORIA ERREPORTAJEA**

Mikel Bartolomé

## **Gerra-ekonomia eta keynesianismoa**

# Gerraren mozkinak

---

## Editoriala

**Z**alantzarik gabe, giza-galera izugarria dakar gerrak. Bomba bakoitzarekin, giza-bizitzak eta bizitza horiei eusteko beharrezkoak diren azpiegiturak suntsitzen dira. Ahalegin eta ezagutza urteak desagertzen dira; espazio eta jarduera jakin batzuetan eta existitzeari utzi dion horren sorkuntzan erlazionatu diren askoren historia bizia. Gerraren ekoizpena bideratutako gaitasunak ere suntsitzen dira; suntsipena ekoiztera bideratutako indar sozial produktiboaren kuantitate izugarri bat. Gaitasun xahutze izugarri bat -eta, horregatik, bizi-kalitatearen okerragotze bat- dakar horrek, ez baita giza-erreproduktzioarako ezinbesteko balio bat. Gerran, itxuraz paradoxikoa den sintesi bat gertatzen da: ezinbestekoa ez dena, alferrikakoa dena, suntsitzailea da berdin-berdin. Baina, suntsitzen badu, baliagarritasunen bat izango du.

Paradoxa hori beste modu honetan ageri da: gerra dirua alferrik galtzea bada, ezin da, aldi berean, irabazien ekoizpena izan. Izan ere, suntsitzailea den hori ez da ez erabilgarria ez produktiboa; baina errealitatetik urrun dago hori. Produktiboa izango ez balitz, gerra ez litzateke aukera bat ere izango.

Horregatik, ez da zuzena gerrako gastu publikoa beste edozein gastu publikorekin parekatzea. Ez da erreala dirua gerran edo osasungintzan gastatu behar ote den planteatzen duen aukera. Lehenik eta behin, diru publikoa ez delako beti existitu den eta betirako existitzen den elementu bat, administratu behar den aberastasun-iturri agortezin gisa -sozialdemokraziaren existentzia justifikatzen duen epika-; eta, bigarrenik, kapital pribatutik altxor publikora doan diru-fluxuak aberastasun horren jabe den kapital pribatuarentzat mesedegarriak izango diren baldintzak eskatzen dituelako.

Aberastasuna, hain justu, hura ekoizteko gaitasunarekin lotuta dago; eta, une horretan, ez dago zertan dirutan eduki. Modu nabarmenagoan: estatuak ezin du dirurik bereganatu, dirua inon ez badago. Kapital pribatuak estatuari emandako kredituak, gehienbat, fikziozko kapitala dira; eta kreditu horiek ematen dituenaren fidagarritasuna -inprobablea izan arren, itzultzen ez badira ere-, estatuauren kaudimen militarra -zeinak negozio gisa ekiten dion gerrari- eta finantza-kapitaletik espero den irabazia ditu abal gisa. Gerran soilik inbertitzeko sortutako kapital-dirua da, kapitalistentzat, negozio bat delako gerra; eta osasun publikoa, berriz, lapurreta bat.

***Ez da erreala dirua gerran edo osasungintzan gastatu behar ote den planteatzen duen aukera. Lehenik eta behin, diru publikoa ez delako beti existitu den eta betirako existitzen den elementu bat, administratu behar den aberastasun-iturri agortezin gisa -sozialdemokraziaren existentzia justifikatzen duen epika-; eta, bigarrenik, kapital pribatutik altxor publikora doan diru-fluxuak aberastasun horren jabe den kapital pribatuarentzat mesedegarriak izango diren baldintzak eskatzen dituelako***

**Gerrak bere  
finantzaketa-iturriak  
sortzen ditu; ez du  
soilik estatuak jadanik  
duen dirua gastatzen.  
Gainera, enpresa bat  
da gerra, hasieran  
inbertitutakoaren  
itzulera ekonomiko  
handiagoa lortu  
nahi baitu**

Gerrak bere finantzaketa-iturriak sortzen ditu; ez du soilik estatuak jadanik duen dirua gastatzen. Gainera, enpresa bat da gerra, hasieran inbertitutakoaren itzulera ekonomiko handiagoa lortu nahi baitu: merkataritza-akordio hobeak, garaitutako herrialdeetan Kapitala inbertitzeko akordioak, barneko eta kanpoko lan-indarraren gaineko kontrol handiagoa alerta-egoeran dagoen bizitza sozial guztiaren militarizazioaren bidez, baliabide naturalen gaineko kontrola... Azken batean, borrokan ari diren kapitalista handiak aberastea eta, horien bidez, estatuaren aberastasuna handitzea, zentro inperialistako erdi-mailako klasea finantzatzeko baliabide gehiago ekartzen dituen: gerra eta arpilatzea, osasun-baliabideen iturri potentzial gisa; laguntza sozialak eta abar, momentuko gobernua- ren administrazioean.

Hortik ulertzen da zergatik erabil ditzakeen estatuak funts handiagoak gerrarako, osasungintzarako baino. Baina, gainera, horrela bakarrik ulertzen da auzi sozialtzat jotzen den hori ez dela administratu beharreko auzi soil bat; irabazi kapitalistak determinatzen du jadanik, eta horren mende dago.

Hala ere, sozialdemokraziaren politika teknokratikoak ondoko elementuen bueltan eusten dio bere diskurtso sozial osoari: estatuaren diruaren administrazio ona, eta laguntza sozialetan eta osasungintzan egindako inbertsioaren areagotzea. Osasungintzarako dirua badagoela dio, eta horretarako erabili beharko litzatekeela, eta ez gerrarako. Nahiz eta sozialdemokraziaren ordezkari politikoez ez duten oso ozen esaten azken hori, jakitun baitira faktore ekonomiko bat dela gerra, politikatik eta estatuak ondo ordaindutako administrazio-postuetatik irabazten jarraitzea ahalbidetzen duena. Hobeto esanda, gerra nahi dute; baina, beste edozer bezala, erdi-mailako klaseko bizimodu duin bat ahalbidetzen duen neurrian.

Gainera, diruaren administrazio txarra eskasia bihurtzen da sozialdemokrazia boterera iristen denean: bere neurriak gauzagarriak ez badira, hori dirurik ez dagoelako da. Hala ere, programa sozialdemokrata gauzatzeko estatuaren esku dagoen dirua eskasa izatea ez da kaudimen ekonomiko falta, erantzukizun sozialdemokrata gabezia baizik. Ez dago diru faltarik, horren inbertsio errentagarri falta baizik -krisi kapitalista, eta ez administrazio txarra-; eta, beraz, ez dago, zergen bidez, itzulerarik estatuaren diru-kutxara.



***Gerra ihesbidea da krisian dagoen Kapitalarentzat, non kapitalista handiak ur gainean mantendu nahi diren, berehalako etekina bereganatuz; ez direlako gai ekoizpen kapitalistaren errentagarritasuna berrezartzeko eginkizun gogorrari heltzeko, hau da, Kapitala metatzea ahalbidetuko duen irabazi-tasa bat***

Gerrak puntu horretan betetzen du bere helburu ekonomikoa, eta kapitalisten kreditu eta inbertsio espekulatiboz betetzen ditu estatuaren kontuak, inbertsio horren itzulera segurua espero baitute. Estatu horrek ez du zalantzarik izango, beharrezkoa bada, prestazio sozialetan murrizketak egiteko eta langile-klasea zerga artean itozteko, lortutako kredituen interesak ordaindu ahal izateko eta kapitalisten konfiantza ziurtatzeko bada.

Ez da erraza gerraren itzulera ekonomikoa kalkulatzea, bere onura zein den kalkulatzea. Kapitalaren ikuspegitik, oro har, sortutako gainbalioari egindako kenketa bat da; gainbalioaren birbanaketa bat gerran espezializatutako enpresetara, estatuaren bidez. Hau da, kapital-metaketari egindako kenketa bat da, estatuak doan eskuratzen baititu bere produktuak, Kapitalak berak aurretik ordaindu dion diruarekin. Beraz, kapital produktiboarentzako, irabazi-galera bat da gerra.

Hala ere, gerrak, zentzu batean, metaketa kapitalistaren oinarriak aldatzen ditu. Bizirik irauteko borroka bat da, Kapitalaren mundu mailako krisi batean; etekina bilatzea da, jadanik ekoiztutako gainbalio urrian, lapurreta bidez. Gerra ihesbidea da krisian dagoen Kapitalarentzat, non kapitalista handiak ur gainean mantendu nahi diren, berehalako etekina bereganatuz; ez direlako gai ekoizpen kapitalistaren errentagarritasuna berrezartzeko eginkizun gogorrari heltzeko, hau da, Kapitala metatzea ahalbidetuko duen irabazi-tasa bat.


Deskribatutakoa bezalako krisi-egoera batean jardutea helburu duen neurri eta estrategia multzoa da gerra-ekonomia: krisi horretan, Kapitalaren premia nagusia ez da irabazi-tasa berrezartzea, baizik eta, lehenik eta behin, kapitalista handien bizi-raupen indibiduala eta, horiekin batera, botere-bloke geoestrategiko handien eta mundu-hondarrean duten estatus politikoaren biziraupena. Horregatik da gerra-ekonomia bat, lehenik eta behin gaitasun militarrek indartu nahi dituelako aipatutako helburuak ziurtatzeko. Eta proletarioen kontrako gerra ireki bat da, borroka ez baita soilik gainbalioa hobeto banatzeko, baizik eta banatu beharreko gainbalio handiagoa lortzeko. ●


ERREPORTAJEA

# MILITARIS- MOA ETA KAPITALA

---

Testua — **Pablo C.**





Garunaren eskanerrak. "Shock leherkorra" delakoak (gerretako kalte bereizgarria) eragindako kalteei buruzko ikerketa zientifiko batekoak dira.


# Gastu militarrek eta kapitalismoaren behar inperialista

1910ean, Alemaniako Alderdi Sozialdemokratako (aurrerantzean, SPD) buruzagi eta Bigarren Internazionalaren teorialari nagusiak, Karl Kautskyk, *Boterearen bidea* (hemendik aurrera, BB) argitaratu zuen. Marxismo iraultzailearen posizioak defendatzen saiatu zen lan horretan; izan ere, zentrismo bernsteindarra bidea egiten ari zen alderdiaren barruan. Testu horretan, sutuki defendatzen du iraultza, sozialismoa eraikitzeko ezinbesteko bitarteko gisa. Horretaz gain, batez ere liburuaren azken zatian, Kautskyk zorrotz deskribatzen ditu garaiko inperialismoaren ezaugarriak eta funtsezko kausak, Kapitalaren eta gastu militarren arteko lotura historikoa maisuki zirriborratuz.

1911n, Lehen Mundu Gerra hasi baino hiru urte lehenago, Rosa Luxemburg iraultzaileak *Utopia bakezaleak* (aipuetan, UB) testua idatzi zuen *Leipziger Volkszeitung*erako, hots, alderdiaren argitalpen ugarietako baterako. Orrialde gutxi batzuetan, European ezartzen ari zen delirio armamentistari buruz modu zehatz bezain kezagarrian ohartarazi zuen, baita joera errebisionistak gerraren gaietan gailenduz gero SPDren eta munduko proletarioen zoriak zuten arriskuaz ere.

Bi testu horien eta garaiko beste batzuen bidez, militarismoa Kapitalaren behar bat izateak zer esan nahi duen ulertzen saiatuko gara, tesi hori historiaren mailan berretsiz, eta argitzen saiatuz zer elementu komun dituzten 1914aren aurreko aldiak eta berrarmatze orokortuaren gure orainaldiak.

**XIX. mendearen amaiera hurbiltzen ari zen, eta mozorro iraultzaile oro galduta zuten jada Mendebaldeko burgesiek. [...] Erakunde patronalak Europa osoan zehar hedatu ziren, eta klase benetan menderatzaile gisa finkatu zen kapital handia. Zentzu politikoan, klase-etsaiak estatuko boteretik kenduz egin zuen hori; zentzu ekonomikoan, gizartearen ekoizpen-unitate zentralen jabe bihurtuta**




#### **AURRENEKO MILITARISMO KAPITALISTA**

Kautskyk 1910ean *Boterearen bidea* liburuan inperialismoari buruz deskribatu zuen teoria interesgarria da, besteak beste, oinarri duen kontakizun historikoagatik. Buruzagi alemaniarak azaltzen duenez, “1860 ingurura arte [...], burgesiak, oro har, etsaitzat zuen armada, gobernua ere etsaitzat zuelako”. Goraka zihoan klase berri horrek, estatuaren botere politikoa lortzeko etengabeko lehian zegoenak, “armada iraunkorra gorroto zuen, zekartzan kostu gogoangarriengatik eta berak borrokatzen zuen gobernu baten euskarri izateagatik” (BB, 46). Burgesia kontinentalaren jarrera partzialki iraultzaileak<sup>[1]</sup> bereizita ulertzen zituen estatuaren militarizazioa eta bere berehalako interesak. Kautskyk honela zioen: “1870eko hamarkadan, gobernuak sendotu egin dira, eta indarra eta egonkortasuna irabazi dituzte. Azken batean, horietako bakoitzak jakin du nazioari sinetsarazten haren interesak ordezkatzeko zituela” (BB, 39). Historiaren norabidea, ordea, aldatzen hasia zen.

Geroago, 1880ko hamarkadan, 1873ko krisi handiaren eta kontinentea zeharkatu zuen industria-depresio luzearen ondoren, oparotasun garai baten hasiera izan zen Europan. XIX. mendearen amaiera hurbiltzen ari zen, eta mozorro iraultzaile oro galduta zuten jada Mendebaldeko burgesiek. Kapitalak proletarioekin zuen jarrerak benetako klase-dimentsioa hartu zuen, eta argi eta garbi erakutsi zuen “nahiz eta [enpresaburuak] elkarren etsaiak izan merkantziak erosten eta saltzen dituzten merkatuan, munduko lagunik onenak direla guztiek merkantzia bera erosten duten merkatu horretan, landarrarenean alegia” (BB, 49). Erakunde patronalak Europa osoan zehar hedatu ziren, eta klase benetan menderatzaile gisa finkatu zen kapital handia. Zentzu politikoan, klase-etsaiak estatuko boteretik kenduz egin zuen hori; zentzu ekonomikoan, gizartearen ekoizpen-unitate zentralen jabe bihurtuta.

Aldi berean, politika sozialista ageri zen burgesiaren botere sozialaren alternatiba erreal bakar gisa, eta Alderdia, berriz, langileen praktika iraultzara bideratzeko gai zen egitura estrategiko gisa. Grebak ziren borroka ekonomiko-sindikalen bihotza, eta “gero eta izaera politiko nabariagoa zuten”. Era berean, eskubide politikoan aldeko borroketan, adibidez “sufragio unibertsalaren aldeko borroketan”, “gero eta gehiagotan izaten zuen arrakasta greba orokorraren armak”. Proletariotzaren praktikak aurrera egin ahala eta borroka ekonomikoak eta borroka politikoak bat egin ahala, hau da, “erreforma sozialen aldeko borrokek borroka politikoen izaera hartu” ahala, burgesiak ez zuen izan zalantzarik ahal zuen guztietan “eskubide politikoak murrizten” saiatzeko (BB, 54). Burgesiaren eta proletarioen arteko borroka nazionala martxan zen jada, Kautskyren hitz hauek agerian uzten dutenez: “Alemanian, proletariotzaren hauteskunde-garaipen handi bakoitzaren aurrean, gero eta gertuago dago sufragio unibertsalaren baliogabetzea [...]. Frantzia eta Suitzan, grebalariei aurka egiten du armadak. Ingalaterran eta Ipar Amerikan, proletariotzaren ekintza-askatasuna murrizten dute auzitegiek” (BB, 55).



Nola garatu zen burgesiaren botere militarra aldi horretan, klase menderatzaile gisa eratu ondoren? Italiako bigarren independentzia-gerra amaitu zenean, 1859an, armada berrantolatu zuen Prusiako Erresumak, Europako estandar militarren mailan egoteko. Berrantolaketa horrek, Engelsen arabera, “armapean mantendu zituen Landwehraren infanteriaren 32 erregimentuak, eta beren lerroak pixkanaka osatu zituzten errekruta kopurua handituz; azkenik, lineako erregimentutan berrantolatu zituen horiek guztiak, eta 40tik 72ra igo horien kopurua. Horrekin batera artilleria areagotu zuen, baita zalditeria ere. [...] Armadaren hazkunde hori Prusiako biztanleriaren hazkundearekiko proportzionala zen gutxi gorabehera, biztanleria hori 1815etik 1860ra 10,5 milioi pertsonatik 18,5 milioira igo baitzen” (1975, 225, letra etzanak egilearenak dira). Burgesiaren hedapen militarrek oraindik ez zuen zentzu historikorik.

60ko hamarkadan, burgesia, mesfidati oraindik, armadarekiko begikotasuna erakusten hasi zen. Indar armatu profesional, erregular eta moderno bat izateko beharraz jabetzen hasi zen, “barneko zein kanpoko etsaia zapaltzeko” (BB, 46). Hau da, estatuaren aparatu burokratiko-militarren gotorlekuak indarra hartu zuen bere interes ekonomiko eta politiko gero eta hedatuagoak blindatzeko mekanismo gisa. Horien aurka, proletariotza hasi zen agertzen bere aurkari nagusi gisa; gorpuzten hasi zen bere klase-kontzientzia.

70eko hamarkadan, Frantziaren eta Prusiaren arteko gerrak (1870-1871), zeina Alemaniako Inperioaren sorrerarekin (Bigarren Reich-a), Parisko Komunaren altxamendurekin eta zapalketarekin eta Frantziako Hirugarren Errepublikaren jaiotzarekin amaitu baitzen, erabat aldatu zituen Mendebaldeko dinamika militarrek. Hala azaldu zuen Engelsek 1878an:

***Politika sozialista ageri zen burgesiaren botere sozialaren alternatiba erreal bakar gisa, eta Alderdia, berriz, langileen praktika iraultzara bideratzeko gai den egitura estrategiko gisa. Grebak ziren borroka ekonomiko-sindikalen bihotza, eta “gero eta izaera politiko nabariagoa zuten”***

## ***Kapitalaren eta lanaren arteko gatazka ekonomiko eta politikoaren etengabeko hedapenak eta igoerak eta enpresen arteko lehia-harremanen gogortzeak eman zioten forma gizarte burges berriari***

“Frantzia-Prusia Gerrak esanahi erabat desberdineko aldaketa-puntu bat adierazten du [...]. Gerra horrek kontinenteko potentzia handi guztiak behartu zituen Prusiako Landwehr sistema indartua ezartzera, eta, horrekin, urte gutxiren buruan hondamen-dira eramango zituen zama militar bat hartu zuten beren gainean. Armadak estatuen helburu nagusi bihurtu ziren, helburu bat beren baitan; herrien zeregin nagusia soldaduz hornitzeko eta soldaduak mantentzea baino ez zen jada. Militarismoak Europa irentsi zuen. Baina militarismo horrek bere baitan zuen jadanik bere hondamenaren ernamuina. Estatuen arteko lehiak, alde batetik, urtero armadetan, gerraontzietan, kanoietan eta abarretan diru gehiago inbertitzera behartu zituen, eta horrek nahitaezko soldadutzaz ezartzea azkartu zuen gero eta modu larriagoan. Horrekin, herri osoa armen erabilerara ohitu besterik ez zuten egiten, hau da, herria prestatzen zuten une jakin batean bere borondatea inposatu ahal izateko”.

Zer ondorioztatzen da Engelsek hor azaltzen digunetik? Burgesiak, Europan ekoizpenaren eremuan zuen nagusitasunak bidea irekita, apurka-apurka botere politikoa finkatu zuela, eta horrek nazioarteko lehia politikoko prozesuak azkartzen zituela. Hainbestera, non Europako zenbait estatuk derrigorrezko soldadutza ezarri zuten, eta, hala, militarismoak masa desjabetuetan beti jarri ohi duen hazi iraultzailea erein. Gogora dezagun 1880ko hamarkadan burgesia, estatuaren agintean behin betiko finkatu zenean eta enpresa kapitalista handia ekonomiaren bektore nagusia zenean, gastu militarrek dimentsio kuantitatibo handiagoa hartzen hasi zirela. Kontuan izan behar da, adibidez, historiako lehen *trust* delaka, Standard Oil Trust, 1882an jaio zela.

Kautskyk, 1891 eta 1908 arteko aldiari dagokionez, honako hau dio: “[Alemaniako] Inperioko biztanleria laurden bat handitu zen; aldiz, lurreko armadaren gastuak bikoiztu egin ziren, erretiro-funtsenak eta zor publikoaren interesenak ia hirukoiztu, eta itsas armadarenak laukoiztu” (BB, 61). Are gehiago, urteko gastuei erreparatuta, ikusten da 1873an, kapitalismoaren lehen krisi ekonomiko handiaren urtean, Alemaniako Estatuak 404 milioi marko gastatu zituela. 1891n %177 hazi ziren gastu horiek, eta 1.118 milioi markora iritsi ziren. Izan ere, 1908an, gerra baino sei urte lehenago, gastu militarra %150 handitu zen berriro, 2.785 milioi markoraino. Oso argia da nola gurutzatzen diren ekoizpen kapitalistaren finkapena, burgesiaren estatuaren zuzendaritza politikoa eta gastu militarren igoera.

1860ko eta 1870eko hamarkadetan, 1848ko iraultza demokratiko-burgesen ondoren, estatua ekoizpen sozial kapitalistaren behar berrietara, hau da, kapitalaren botere ekonomikora egokitu zen heinean, gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen fenomeno militar kapitalistak. 1880ko eta 1890eko hamarkadetan, militarizazio handiko prozesu bat hasi zen Europan, non gastu militarren hazkundeak hazkunde demografikoa gainditu zuen, kontinenteko ekonomia nagusietan kapitalismoa osoki garatzen ari zen aldi berean. “Aurrekontu-eraldaketa” dei dezakeguna da hori; paradigma fiskala erabat aldatzen du baldintza sozioekonomiko berriak bermatzeko ogasun publikoak bere gain hartu behar dituen eskakizunen arabera.

Ildo horretan, funtsezkoa da ulertzea “aurrekontu-eraldaketa” hori kapitalaren joera orokorren garapen luze eta geldoaren gailurra dela, eta ez bat-bateko aldaketa bat politika publikoan. Europan kapitalismoa ekoizpen-modu gisa sendotzearen emaitza da gastu militarren hazkunde izugarria. Kapitalaren eta lanaren arteko gatazka ekonomiko eta politikoaren etengabeko hedapenak eta igoerak eta enpresen arteko lehia-harremanen gogortzeak eman zioten forma gizarte burges berriari. Kapitalaren botere militarrek bidea egin zuen ekoizpen kapitalista ekoizpen-forma orokor gisa hedatu zuen heinean, bai eta burgesiak bere burua politika nazionalaren klase zuzendari gisa ezarri ere.

**Hainbat modutan arindu daiteke errentagarritasunaren beheranzko presioa –ekonomia politiko klasikoak “inbertsioaren errendimendu beherakorra” deitzen dio horri–. Adibidez, horretarako moduak dira langileen esplotazio-maila handitzea edo berrikuntza teknologikoak enpresen kostuen murrizketan dituen ondorio positiboak aprobetxatzea. Beste modu horietako bat inperialismoa da; kapitalek beren eragin-eremua zabaltzea ahalbidetzen du, horrela irtenbide bat emateko erabili gabe kapital horri, zeinak ez baitu topatzen aurreko inbertsio-zikloan bezain errentagarria den balorizazio-espaziorik**

Zergatik eskatzen du Kapitalaren botereak estatuaren ahalmen militarrek izugarri sendotzea eta indartzea? Kolonialismoa fenomeno kapitalista hutsa ote da? Ez al da militarismoa klase-borroka bezain zaharra? Ikus dezagun zein den kapitalismoaren arrazionaltasun ekonomikoaren eta gastu militarren arteko lotura. Enpresak, epe ertainean eta multzo gisa hartuta, ezinbestean hasi ziren errentagarritasun-arazoak izaten. Kapitalaren barne-kontraesan deitzen dioguna da hori. Ekoizpen kapitalista egituratzen duen jabetza pribatuaren erregimena da lan sozialaren jabetze pribatuaren oinarria, hau da, desjabetutako langileek sortutakoa burgesiak bereganatzea ahalbidetzen duen hori. Baina, aldi berean, ekoizpen-baliabideen jabetza pribatua da enpresen jarduera ekonomikoari forma ematen dioten lehia-harremanen oinarria. Lehia horrek enpresak beren ekoizpen-baliabideen erabilera etengabe optimizatzea behartzen ditu, lehiakideen aurrean biziraun ahal izateko. Zenbat ekoizten duten, nola ekoizten duten, zer prezio-tan saltzen duten edo zenbateko margina lortzen duten: horretan guztian esku hartzen du lehiak. Egoera horrek bultzatzen ditu enpresak berrikuntzak egin behar izatera eta ekoizpen-prozesuak emankorrako bihurtzera. Eta horrek berekin dakar sozialki beharrezkoa den giza lana aurrezte. Hori xe bera da gaur egun ibilgailu bat edo jantzi bat ekoizteko beharrezkoa den denbora duela ehun urte baino askoz ere txikiagoa izatearen arrazoia. Kapitalismoaren iraultza teknologikoaz ari gara.



Hala ere, giza lana da kapitalistaren irabazi-iturria, eta, horregatik, etengabeko aurrezpen horrek irabazi-tasa behar izan du epe luzera. Kapital sozialaren batez besteko errentagarritasunaren jaitsierak gainmetaketa orokor bat sortzen du. Hainbat modutan arindu daiteke errentagarritasunaren beherazko presioa –ekonomia politiko klasikoak “inbertsioaren errendimendu beherakorra” deitzen dio horri-. Adibidez, horretarako moduak dira langileen esplotazio-maila handitzea edo berrikuntza teknologikoak enpresen kostuen murrizketan dituen ondorio positiboak aprobetxatzea. Beste modu horietako bat inperialismoa da; kapitalek beren eragin-eremua zabaltzea ahalbidetzen du, horrela irtenbide bat emateko erabili gabe kapital horri, zeinak ez baitu topatzen aurreko inbertsio-zikloan bezain errentagarria den balorizazio-espaziorik.

Oso agerikoa da Kapitalaren automugimendu horren ondoriozko logika. Kapitalismoaren oinarritzko forma politikoak, estatuak, bere subiranotasun politiko-militarra zabaltzea lortzen duen tokian, estatu horretako kapital nazionalak espazio bat aurkituko du bere salgaiak baldintza hobeetan trukatzeke, bere posizio finantzarioa hobetzeko eta tokiko produktuak abantailaz eskuratzeko. Bestela, zuzenean desjabetuko ditu, historikoki Munduaren Hegoaldea deitzen den horretako baliabide naturalekin egin duen bezala. Azken batean, enpresek dituzten batez besteko errentagarritasun-arazoei aurre egiteko estatuak duen erreakzio militarra da.

Hala ere, Leninek *Inperialismoan* dioen bezala (aurrelanean, I), “politika koloniala eta inperialismoa existitzen ziren kapitalismoaren fase garaikidearen aurretik, baita kapitalismoaren aurretik ere” (I, 50). Inperialismoaren forma kapitalistaren elementu historikoki berritzailea *ekoizpen-bitartekoen hedapen sistematikoa* da. Bestela esanda, “itsasoz haraindiko herrialdeetan politika konkistatzailearen aro berri bat inauguratu zen, [...] herrialde industrialek herrialde barbaroetara, produktuak ez ezik, industria modernoaren ekoizpen- eta garraio-bitartekoak ere esportatu zituzten” (BB, 64). Hori da Leninek ere *kapital-esportazioa* deitu zuena. Gaur egun atzerriko inbertsio zuzena deienez gero mekanismo ekonomiko bat izan zen, eta, horren bidez, XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen hasierara bitartean, mundua beren artean banatu zuten Europako potentzia nagusiek, eta, hala, kolonizatzaileen eta kolonizatuaren artean zatitu zuten mundua:

“1876aren ondoren, sei potentzia handientzat izugarri hedatu ziren jabetza kolonialak; %50etik gora, 40 milioi kilometro karratutik 65 milioi kilometro karratura. Lurralde-hedapena 25 milioi kilometro karratukoa izatera iritsi zen, metropolien azalera (16,5 milioi) baino %50 gehiagokoa. 1876an, potentzia horietako hiruk ez zuten koloniarik eta laugarrenak, Frantziak, ia ez zuten koloniarik. 1914an, lau potentzia horiek 14,1 milioi kilometro karratuko azalera lortu zuten, hau da, Europako azalera baino %50 gehiago gutxi gorabehera, eta ia 100 milioi biztanle” (I, 50).

Kapital-esportazio masiboaren lehen ondorio ekonomikoa ekoizpen-modu kapitalistaren mundializazioa izan zen. “Ekoizpen-baliabideen esportazioak [...] ekoizpen-modu kapitalista sartzen zuen Europako zibilizaziotik kanpoko herrialdeetan, eta horietan berehala suntsitzen zuen ordena ekonomikoko gauzen egoera tradizionala” (BB, 64). Hedapen inperialistak ekoizteko modu bat esportatu zuen, eta ekoizteko modu horretan esku hartzen zuten lehiak, esplotazioak, garapen teknologikoak, lan biziaren aurrezpenak eta horien guztien ondorioak, hots, krisiak. Baina, gainera, hedapen horrek su eta gar irauli zituen heinean gizarte aurrekapitalistak –oraindik planetaren zatirik handiena hartzen zuten-, emantzipaziorako baldintza materialak txertatu zituzten gizarte horiei. Europaren nagusitasun tekniko-materialak muga kontinentalei lotuta egoteari utzi zion. Inperialismo kapitalistak tresnarik boteretsuena eman zion atzeratutako nazioei mendeetan arrastaka zeramatzen nazioarteko mendekotasun-harremanak amaitzeko: proletariotza iraultzailea.

Bigarren ondorio ekonomikoa merkatu global kapitalistaren artikulazioa izan zen. “Herrialde berriak zaharrek lehiari sartzeko hasi ziren. [...] Eki aldeko herrialdeetan espiritu europarra pizteak ez zituen Europaren lagun egin, etsai baizik, indar bereko etsai” (BB, 65). Egitura kolonialen botereak eutsi egin zion Bigarren Mundu Gerraren ostera arte, baina ukaezina da logika kapitalistaren mundu mailako hedapenak metaketa-polo berriak sortzea ahalbidetu zuela, eta horiek berehala hasi zirela Europako Kapitalarekin lehiatzen.

***Inperialismoaren forma kapitalistaren elementu historikoki berritzailea ekoizpen-bitartekoen hedapen sistematikoa da. Bestela esanda, “itsasoz haraindiko herrialdeetan politika konkistatzailearen aro berri bat inauguratu zen, [...] herrialde industrialek herrialde barbaroetara, produktuak ez ezik, industria modernoaren ekoizpen-eta garraio-bitartekoak ere esportatu zituzten”***

Hirugarren ondorio ekonomikoa Mendebaldean “oparotasun-aro berri bat” hastea izan zen (BB, 64), zeinak, barne-merkatuaren arazo ekonomikoak konpondu beharrean, Europako kapitalismoaren kontraesanak geografikoki lekualdatzen baitzituen. Horixe da inperialismoa Kapitalaren kontra-joera dela dioen ideia.


Laugarren ondorio ekonomikoa atal osoan zehar deskribatu dugun militarismoaren erabateko areagotzea izan zen, eta kapitalismoaren erreproduzio espantsionista ahalbidetu zuen.

Laburbilduz, badirudi historiak eta inperialismoari buruz inoiz idatzi diren testu marxista garrantzitsuenetako biren (Kautskyrena eta Leninena) azterketak adierazten duela txanpon beraren bi aldeak direla European ekoizpen kapitalistaren ezarpena eta militarismoaren gorakada.

“Britainia Handia izan zen kapitalista bihurtu zen lehen herrialdea, eta, XIX. mendearen erdialdean, merkatu librea bere egitean, ‘munduko lantegi’ gisa aurkeztu zuen bere burua, herrialde guztientzako manufakturatutako ondasunen hornitzaile gisa. Trukean, haiek lehengaiz hornitu behar zuten bera. Baina, XIX. mendearen azken laurdenean, Britainia Handiaren monopolio hori hautsi egin zen; beste herrialde batzuk, beren burua mugazerga ‘protektionisten’ bidez babestuz, estatu kapitalista independente bihurtu ziren” (I, 38).

Leninek mahaigaineratutako kronologia hori bat dator Kautskyk azalduko militarizazioaren denbora-eskemarekin. Esperientzia historikoak berresten du ezinezkoa dela ekonomia kapitalista bat hedatzea gizartearen ekoizpen-baliabideen kopuru handi bat gastu militarretara bideratu gabe. Ekoizpen-egitura kapitalistak berak, lehiaren bidezko bere-berezko erreprodukzioak eta estatu-nazioetan (edo, gaur egun, estatuz gaindiko antolakuntza-unitateetan) duen antolaketa politikoak aparatu militar ikaragarria behar dute klase kapitalistaren boterea bermatzeko bai bere muga nazionalen barruan bai horietatik kanpo.

Gainera, ekonomiaren barne-kontraesanen hedapenaren ondorioz lehia kapitalistako harremanak etengabe areagotzeak gastu militarrek eguneratzen behartzen ditu estatuak, eta hura klase-borrokaren garapen-mailara egokitzea. Azken batean, gerra enpresen arteko lehiaren forma politiko garatuena balitz bezala agertzen da kapitalismoan; eta gastu militarra, berriz, burgesiaren klase-boterearen aurrekontu material bezala.





### **GERRA-HOTSAK ADITZEN DIRA: BURGESIAREN ERASOALDI MILITARRA PRESTATZEN ARI DA**


Azter dezagun orain Rosa Luxemburgen “Utopia bakezaleak”. 1911n gaudе, eta Europako potentzia nagusiek, non kapitalismoa den ekonomia-forma nagusia, askotariko erronkei egin behar diete aurre. Aipatu dugun moduan, ekoizpen-modu kapitalista mundu-mailan egonkortu izanak lehiakide berri batzuen posizioa indartu du, hala nola Japoniarena eta Estatu Batuenak. Bi potentziak aieratzen dira ekoizpen industrialaren foku moduan, eta gero eta gaitasun handiagoa dute Europako ekonomietan lehiatzeko. Gainera, potentzia kolonial nagusiak –honezke-ro bi hamarkada baino gehiago altxor publikoaren kantitate izugarriak daramatzate gastu militarrenera bideratzen-ahalegin handiagoa egiten hasi dira nazioarteko armamentu-lasterketan, zeinaren protagonista nagusi Alemaniako Inperioa eta Britainia Handia baitira. Kolonialismoa eta enpresen arteko lehia gurutzatzen dira gerraren aurreko urteetan, Europako militarismoa unerik gorenean dagoen une horretan:

“Armamentuen lasterketa hau modu apalean hasi zen 1880ko hamarkadaren amaieran, eta bizkortu egin zen mende berriaren hasieran, bereziki gerraren aurreko urteetan. Britainiarren gastu militarrek egonkor mantendu ziren 1870an eta 1880an, bai aurrekontu osoaren ehunekoari dagokionez, bai eta per capita gastuari dagokionez ere. Hala ere, 32 milioi liberako aurrekontua izatetik 44,1 milioiko aurrekontua izatera igaro ziren 1898-1899 aldian, eta 77 milioi liberakoa baino gehiagokoa 1913-1914 urteetan (...) Bitartean, Alemaniako armadaren kostua are modu nabarmenagoan handitu zen: hamarkadaren erdialdean urtean 90 milioi markokoa izatetik ia 400 milioikoa izatera pasatu zen 1890aen.”<sup>[2]</sup>

Aldi berean, marxismo iraultzailea zabaltzen ari zen Europan. 1889an Bigarren Internazionala sortu zen, eta kontinente osoko antolakundeak zituen atxikita –Liebknechten esanetan “langileen mundu-mailako parlamentua zen, munduko lehenbizikoa”<sup>[3]</sup>. Langileen protestek, esan dugun moduan, gero eta kontzientzia-maila handiagoa lortu zuten, eta langile iraultzaileak masa-antolakunde hegemonistetan hasi ziren elkartzten.

Testuinguru horretan, Luxemburgek bakezaletasun burgesarekin zituen zorrak kitatzea erabaki zuen, eta azaldu zuen zein zen sozialista iraultzaileen zeregin nagusia Europa suntsitzen ari zen militarismo gorakorraren aurrean:

“Zein da gure zeregina bakearen arloan? Kontua ez da sozialdemokratek egiten duten moduan uneoro bakearenganako maitasuna erakustea; gure zeregin behinena *herri-masen aurrean militarismoaren zeregina zein den argitzea* da, bai eta garbi seinalatzea ere zer desberdintasun dauden printzipioei dagokienez sozialdemokraten posizioaren eta bakezale burgesenen artean. Zertan da diferentzia hori? (...) Gure abiapuntuak erabat elkarren aurkakoak dira: bakearen lagun burgesek uste dute munduko bakea eta desarmatzea lorgarriak direla ordena sozial nagusiaren esparruan; guk, aldiz, historiaren ulerkerak materialista dugu oinarri, eta sozialismo zientifikoa *sinietsita gaudе militarismoa desagertzeko modu bakarra klase kapitalistaren estautua suntsitzea dela.*“



Luxemburgek azaltzen duenez, eta Leninek eta Kautskyk gerraurreko garaian zituzten ideiekin sintonian, unitate bakarra dira estatu kapitalista eta militarismoa. Luxemburgen analisitik ondorioztatzen den estrategia politikoa argia da: gerra-prozesua beti egongo da latente kapitalismoan, eta proletariotza antolatua botere politikoa hartzea da gerra-prozesua geldiarazteko bide bakarra. Estatu kapitalista gizarte-harreman kapitalistek hartzen duten forma politikoa baino ez da, hau da, enpresarien eta langileen arteko gatazka hartzen duen forma. Lehen aipatu dugun “aurrekontuaren eraldaketa” hori da –haren bidez gastu militarrek hantitzen dira kapitalismoan– burgesia estatuan finkatzearen –eta hura Estatu kapitalista bilakatzearen– adierazpen historiko askoren arteko bat da. Bestela esanda: militarismo burgesaren amaiera estatua deuseztatzea da, eta ez bakezaleak ezartzea haren gobernu-organoean. Halaber, Luxemburgek honela kontatzen du inperialismoaren logika ekonomikoa:


“Militarismoa hertsiki lotuta dago politika kolonialarekin, tarifa-politikarekin eta nazioarteko politikarekin, eta nazioek armamentu-lehiari muga jarri nahiko balio, muga serio eta zintzoa, lehenbiziko pausoa litzateke *merkataritzaren arloa desarmatzea*, alde batera uztea beren kanpaina kolonialista harrapariak eta beren nazioarteko politika, munduko txoko guztietan eragin-esparruak konkistatzeko erabiltzen dutena: bi hitzetan, beren barne-eta kanpo-politikak estatu kapitalista moderno baten gaur egungo politikak exijitzen duenaren kontrakoa izan beharko luke” (UB, 1, letra etzanak egilearenak).

Luxemburgek azpimarratzen du inperialismoa enpresen arteko lehia dela baina nazioarteko planoan zabaldua. Horrela, poloniar iraultzaileak baieztatzen du militarismoa eta ekoizpen kapitalista txanpon baten aurkia eta ifrentzua direla, eta, beraz, beharrezkoa dela estatuak politikoki esku hartzea kapitala mundu mailan metatu dadin; bestela esanda, esaten du armamentuaren garapena ezinbestekoa dela negozioak hedatzeko aurrebaldintza moduan. Lehenago aipatu dugun esparru teorikoari jarraikiz, estatuaren militarismoa biziraupenerako baldintza da munduko merkatuko enpresentzat.

Horregatik guztiagatik, Luxemburgen ustez, estatu burgesaren boterea hartzea eta suntsipena eta ekoizpen kapitalistaren garaipena dira bide errealista bakarrak gizarte militarizatu egon ez dadin. Basakeria militarista moralismo konplizetik salatu beharrean, analisi zientifiko baten bidez ezartzen du zer unitate-harreman duen kapitalismoarekin, eta ondorioztatzen du Alderdi Iraultzaile bat sortzea dela modu bakarra ordena sozial egiazki baketsu bat sortzeko, hots, sozialismoa.

“Eta horrela azaltzen da ulerkera sozialdemokrataren muina: militarismoa, bere forma guztietan –gerra edo bake armatua– kapitalismoaren ume legitimoa dela, kapitalismoaren emaitza logiko bat, eta, beraz, *egiazko bakea lortu eta armamentuaren zama izugarritik libratu nahi duenak desira izan behar duela sozialismoa ere. Soilik horrela argitu daiteke armamentuari dagokion eztabaidan zertan datzan sozialdemokrasiaren argipena eta alderdiarentzat errekrutatzea*”.

**Unitate bakarra  
dira estatu  
kapitalista eta  
militarismoa.  
Luxemburgen  
analisitik  
ondorioztatzen  
den estrategia  
politikoa argia  
da: gerra-  
prozesua beti  
egongo da latente  
kapitalismoan,  
eta proletariotza  
antolatua botere  
politikoa hartzea  
da gerra-prozesua  
geldiarazteko  
bide bakarra**



Justu jarraian, ohartarazten du, kasik gerora etorriko zena iragarritz, zein arriskutsua zen alderdiarentzat militarismo gorakorren aurrean alderdiak estrategia politiko independenterik ez jartzea martxan.


“Lan hori, alabaina, korapilatsu xamarra bihurtuko da, eta sozialdemokratek posizio ilun eta zalantzia hartuko dute baldin eta roletan aldaketa bitxiren bat gertatu eta gure alderdia kontrakoa egiten ahalegintzen bada, alegia, estatu burgesa konbentzitzen saiatzen esanez estatu kapitalistaren posiziotik gai dela armamentismoa mugatzeko eta bakea lortzeko.” (UB, 2)

Guztiok dakigu nola jarraitu zuen historiak Luxemburgen ohartarazpenen ondoren. SPDren diputatu sozialistek men egin zieten Alemaniako kapitalaren eskakizun belikoei. Hamarkada batzuetan zehar, kapitalismoaren garapenaren ondorio zuzen moduan, gero eta gehiago armatu ziren Europako potentzia nagusiak, harik eta Lehen Mundu Gerra iritsi arte. Gerrarteko garai iskanbilatsuak muntro faxistaren gorakada izan zuen protagonista nagusi, eta ondoren Bigarren Mundu Gerra etorri zen, non milioika proletarioren bizitzak sakrifikatu baitzituzten burgesiaren mundu-mailako boterea finkatzeko. 30eko hamarkada horretan, sarraski orokortuko garaio-tan, proletariotzak euste-dike baten funtzioa bete zuen inperialismoaren, kolonialismoaren eta gerraren garapenaren aurrean, eta batzuetan baita erasoaldirako armada moduan ere, agerian utziz garai hartako iraultzaileen artean aski zabaldua zegoen ideia hau: iraultza sozialista zela armamentismoa eta gerrak deuseztatzeko modu bakarra. Gerren, faxismoaren eta kolonialismoaren amaiera langile-klasearen lanaren fruitua izan ziren, bere bizitzaz ordaindu baitzuen diruaren botereak eragindako desmasia eta terrorea.

## NON GAUDE ORAIN?

Artikulu honen helburua militarismoaren eta Kapitalaren arteko barne-harremana ulertzea zen. Historia aztertuz, argitu nahi genuen “armamentismoa eta gerrak, nazioarteko gatatzak eta politika kolonialak Kapitala sehaskan zenetik egon direla bertan”<sup>[4]</sup>. Kapitalismoak militarismoa behar duela diogunean zera esan nahi dugu: ordena sozial kapitalista denboran iraunarazteko modu bakarra teknologia militarera baliabide sozial asko bideratzea dela, eta historiako garai honetan oinarri material horren gainean zabaltzen direla gerra planetaren luze-zabalean. Beraz, ondoriozta dezakegu burgesiaren armadek proletarioak masan ez hiltzeko bide bakarra nazioarteko iraultza sozialista dela, aukera emango diguna mundu berri bat eraikitzeko, kapitalistarik, haien estaturik eta haien muga nazionalik gabea.

Alabaina, kontsigna hori ez dago zabaldua Mendebaldeko langileen artean. Lehen Mundu Gerra hasi aurreko hamarkaden eta gure gaur egungo egoeraren arteko diferentzia politiko nagusia da orain ez dugula masa-alderdi iraultzaileak. Egitura hegemonista handirik gabe, marxismo iraultzailearen ideiak langileei helarazteko gaitasuna oso mugatua da. Horrez gain, Mendebaldeko langile-klasea esnatzen hasia da bake faltsuaren lozorrotik, non Mendebaldeko estatuak beren mugetatik at zabaldu baitute gerra. Zeharo tragikoa da nolako konbinazioa sortzen duten alde batetik tentsio beliko handiagoek eta bestetik ez izateak masa-antolakunde independenterik, zeinak, errekrutatze modukoak diren langileak zibilen balizko mobilizazio orokor batean antolatzeaz gain, kontzientzia iraultzailea emango liokeen gerraren aurkako erreakzio espontaneoari. Hori dela eta, komeni da gerraurreko eta gaur egungo militarismoaren arteko ezaugarri komunak eta desberdinak detektatzea Alderdi Komunistaren eraikuntza-prozesuan aurrera egitea zein eragintziazkoa den ulertzeko.



Kapitalaren pentsamendu-zentro estrategiko nagusiek egiten dituzten analisi ekonomiko guztiek diote kapitalismo globalaren azken hamarkaden ezaugarri nagusiak geldialdi ekonomikoa eta mundu-mailako lehiaren areagotzea direla. Ez da literatura marxistak ekarri duen elementu berritzaile bat Mendebaldeko kapital-metaketa kinka larrian dagoelako ideia, ezta Mendebaldeko potentziek balio-kate globaletan beren botere-posizioa indartzen ari direlako ere. 1914. urtea baino lehenagokoak garai erdioparokak izan ziren Mendebaldean, kolonialismoa, industrializazio masiboa, merkataritzaren eta demografiaren hazkundea eta finantzen zabalpena zituena oinarri. Hala ere, garaiko pentsalari marxista handiek identifikatu zuten moduan, XIX. mendearen bigarren erdialdean nabarmentzen hasiak ziren ekonomia kapitalista guztien barne-kontraesan propioak. Eguneroko ogia ziren ekonomia-atzeraldiak, banku-izua, gainmetaketa eta inbertsio kapitalistaren errendimendu beherakorra. Baina, oro har, ezin dezakegu esan geldialdi-garai hori luzea izan zenik. *Hau da gerraurreko militarismoaren eta gaur egungoaren arteko diferentzia: egoera ekonomikoa termino makroekonomikoei dagokienez besterik gabe desberdina da batetik bestera, baina kapitalaren metaketari dagokionez, gaur egungoa askoz okerragoa da.*

Kapitalismo aurreratua hasieran, lehian eragina izan zuen kapital nazionalaren kontraesan ekonomikoak itsasoaz gaindiko lurraldeetara eramateko beharrak, mundua konkistatzeko lasterketa batean. Metaketa nazionalaren problemak aldi baterako eteten ziren gelditzen ziren nagusitasun politiko transnazionalak konpentsaturik. XXI. mendeko kapitalismoan, praktika horrek zailtasun gehiago zituen. Gaur egun kapitalismoa guztiz dago zabaldua, eta ekoizpen-endarren garapen-maila puskaz altuagoa da. Lan biziak ekoizpen-prozesuetan izan duen parte hartzea gero eta txikiagoa izan da azken 100 urteetan, eta kapitala metatzeko gaitasuna gero eta urriagoa, batez ere 70eko hamarkadatik aurrera. Gainbalioaren ekoizpena baxua denez, ez da posible nahikoa irabazi ekoiztea kapitala beti gehiago eta gehiago ekoizteko. Azaldu dugun moduan, egoera ekonomikoa ez da berbera, nahiz eta bi testuinguruek dituzten Kapitalaren barne-kontraesanak oinarrian. Alabaina, bi aldiek komunean dutena zera da, munduko potentzia nagusiek, garapen industrial eta ekonomiko handiena dutenek, ez dutela espaziorik topatzen beren burua tirabirarik gabe munduko merkatuan txertatzeko.

Orain, hori oso nabaria da. Blokeen arteko gatazka gero eta gardenagoa da blokeetako batek beste baten kaltetan posizio hegemonikoak irabazi ahala. Mendebaldeak zuzenean edo zeharka esku hartzen duen gatazka militarrek ez dira dagoeneko "isolatuak". Orain, gatazka militarren atzean beti dago blokeen arrazionaltasuna, hau da, segituan ikusten da bloke baten mugimenduak zer neurritan ahultzen duen beste blokea, eta horrek tentsio handitzen du nazioarteko gatazkaren eragile handien artean: Txina eta NATO.

Joera ekonomiko kapitalisten garapenak sortzen duen lehia-tentsioaren ondorio zuzena da nazioarteko gatazka militarrek hain dimentsio handia hartzea. Hori horrela, Mendebaldeak gastu militarrek handitzea estatuen erantzun bat da, enpresa-logika kapitalistak pixkanaka bere aukera baketsu guztiak agortzen dituen bitartean fronte militar potentzialei ematen dietena hain zuzen. Enpresa-eremuko lehia-tentsioen aurreko erreakzioak besterik ez dira blokeen artean tarifa-politikak aplikatzea eta mehatxu politiko gurutzatuak. *Hau da gerraurreko militarismoaren eta gaur egungoaren arteko lehenengo elementu komuna: lehia ekonomikoa erabatekoa da, eta tentsio politikoak hazten ari dira.*

***Mendebaldeak gastu militarrek handitzea estatuen erantzun bat da, enpresa-logika kapitalistak pixkanaka bere aukera baketsu guztiak agortzen dituen bitartean fronte militar potentzialei ematen dietena hain zuzen. Enpresa-eremuko lehia-tentsioen aurreko erreakzioak besterik ez dira blokeen artean tarifa-politikak aplikatzea eta mehatxu politiko gurutzatuak***





Bigarren Mundu Gerraz geroztik, Mendebaldeak gaitasuna izan du gerra bere mugez gaindi eramateko. Luxemburgek adierazi zuen moduan, “bake iraunkorraren ideiak (...) soilik Europako kontinenteko gertakariak hartzen ditu aintzat, eta ez du aintzat hartzen Europan hamarkada batzuetan gerrarik ez izanaren funtsezko arrazoia dela nazioarteko antagonismoak izugarri zabaldu direla Europako kontinentearen mugetatik” (UP, 6). Azken hamarkadetako Mendebaldeko egoera parekoa izan da. Gerrak ez du sekula etenik izan, eta aparatu militarrek jarduten eta teknifikatzen jarraitu du, merkatuak une bakoitzean ezartzen zituen beharretara egokituz.

Ordea, gastu militarren eboluzioa ez da lineala izan 1949tik. 1991n Gerra Hotzaren amaierara arte, “gastu militarrek gora egin zuten, eta hori nagusiki lotuta zegoen arma nuklearren eta aliantza militar batzuen garapenarekin, hala nola NATOren eta Varsoviako gutunarenarekin. Horrez gain, gastuok puntualki igo ziren Koreako gerran (1950-53) eta Vietnamgoan (1965-75)<sup>[5]</sup>. Gerra Hotza amaitzean, Mendebaldeko estatuak erlatiboki murriztu egin zituzten gastu militarrek. Potentzia hegemoniko lehiakorrik ez zela eta -Arrighik “hegemon” esaten die halakoei-, garai erdioparatu bat hasi zen, 2008ko krisiarekin amaitu zena. Horrek Mendebaldeko kapitalismoa atzera bultzatu zuen armamentismoari eta gerrari dagokionez. “Terrorismoaren kontrako borrokari” lotutako une belikoetan salbu -gai honek ez du aipamenik merezi artikuluan esan ditugunen ondoren-, defentsako aurrekontuetara baliabide gutxiago bideratu zituzten kasu gehienetan.

2014an, Galesko goi-bilera egin zenean, NATOk bere kide guztiak estutu zituen estatuaren BPGaren %2 gastu militarra bideratu zezaten hurrengo hamar urteetan. Euromaidanaren kariaz egosi zen faxismoak Ukrainako gobernu erregionalista akabatu zuen urte horretan bertan, eta horrek gatazka militarra piztu zuen Kieven eta Donbasseko eskualdeen artean. Hasia zen Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazka, eta NATOk, bere zereginaz eta Moskurekiko tentsio militarrek sor zezaketan ondorio militarrez jakitun, gastu-arau berri hori ezartzea erabaki zuten. Errealitatea da geroztik pakto ez-ofizial bat izan dela Estatu Batuen eta NATOren gainerako estatuaren artean. AEBren gastu neurrigabea (munduko gastuaren %37,5 du, zeina altuagoa baita Txinak, Errusiak, Indiak, Britainia Handiak eta Alemaniak elkarrekin duten gastua baino)<sup>[6]</sup>, Europako Estatuak “NATOren aterkipean” bizitzeko modua eman die. Orain arte.

SIPRIren arabera<sup>[7]</sup>, Europaren 2019-2023 urteen arteko arma-inportazioa %94 igo da aurreko laurtekoaren aldean. NATOren idazkari nagusi John Stoltenbergekin iragarri du 2024an gutxienez 18 aliatuak beteko dutela %2aren konpromisoa, eta Vilniuseko iazko goi-bileraz geroztik, azken helburu zen hori minimo izatera igaro da<sup>[8]</sup>. Zehazki, Espainiar estatuak, Sánchez 2018ko ekainean gobernura sartu zenetik, %62,4 handitu du gastu militarra<sup>[9]</sup>. Aintzat hartuta aurreikuspenen arabera Espainiak 2024. urtea BPGaren %1,3 gastu militarretara bideratzen amaituko duela, espero izatekoa da legealdian zehar gerra-aurrekontuak gehiago igoko dituztela iragartzea. *Hau da gerraurreko militarismoaren eta gaur egungoaren arteko bigarren elementu komuna: Mendebaldeko estatuak berrarmatzeko prozesu batean daude.*

Esaten denez, 1939an Hermann Göring Hitlerren ordezkari militarra, gainpisu nabarmeneko bera, hau azaltzen ahalegindu zen Alemaniako herrari: “kanoiek indartu egingo gaituzte; gurinak gizendu besterik ez gaitu egingo”. Benito Mussolinik Italia osoan jarri zituen “*Burro o cannoni?*” (gurina ala kanoiak?) zioten afixak. Ez dakigu azalpenak zer jatorri historiko duen. Batzuek Jennings Bryan AEBko estatu-idazkariari lotzen diote, eta beste batzuek Von Wieser austriar ekonomialari. Antzekoak dira egun dugun egoera eta XX. mendearen hasieran sortzen hasia zena, kanoien eta gurinaren artean aukeratu beharra kapitalismoaren historian lehenengo aldiz agertzen hasi zenean. Kautskyk garai hartantxe seinatu zuen aurrekontu militarrek handitzeak arriskuan jartzen zituela “lan zibilizatzaile urgenceenak (...); eskolak, komunikazio-bideak, bide eta kanalak eta abarrak hobetzea” (BB, 56).

Gutxi-asko duela urtebetez geroztik, Mendebaldeko estatuak problema handiak dituzte jasangarritasun fiskalaren arloan. Dagoeneko iragarriak dituzte murrizketa-paketeak haietako askok, besteak beste Frantziak, Alemaniak eta Britainia Handiak. Horren jatorrian daude, neurri batean, pandemiak ekarri zuen ahalegin fiskal ikaragarria eta estatuak sistematikoki blaitu izana diru publikoaz enpresa nazionalak, lehiakorragoak izan daitezen, garaiotako merkataritza-tentsio handiak direla-eta. Ikuspegi horretatik, estatuak berrarmatzea ez da bakarrik proletario atzerritarren kontrako erasoaldi potentziala, burgesiaren plater hautsiak ordainduko dituen bere bizitzaz, gerra kapitalistan beti gertatzen den moduan. Horrez gain, berrarmatze hori proletariotza nazionalaren erasoaldi kapitalistako forma partikular moduan ere ageri da, “hark ordaintzen baititu lehiakideen arteko borrokaren gastuak” (BB, 63). *Hau da gerraurreko militarismoaren eta gaur egungoaren arteko hirugarren elementu komuna: berrarmatzeko prozesua langile-klasearen pobretzearekin finantzatu da.*

## **Gehiengoa masan antolatzeke gai den organismo bakarra –eta haren interesetan ez da inola ere sartzen gudu-zelaian sarraski bat sortzea nazio baten trapuaren izenean– Alderdi Komunista da. Militarismoaren kritikak efektu egiazki bakezalea sortzeko, ezinbestean lagundu behar dio alderdi horren antolakuntzari**



Sozialdemokraziak burgesiaren programa politikoaren bueltan bat egitea, zeina gogor kritikatu baitzuen Kautskyk 1910ean baina SPDren burkrazia zentristak bere egin baitzuen gerra-aurrekontuen bozketan, une honetan nagusi da Mendebaldeko estatuak<sup>[10]</sup>. Parlamentu burgesaren elementurik progresistek –berdin gobernuan edo oposizioan egon– berrarmatze-programa guztiak onesten dituzte, Ukrainari laguntzeko misio espezifikoak baimentzen dituzte eta Israeli armak saltzen dizkiote disimulurik gabe.

Gaur-gaurkoz, ez dago estatuaren politika inperialistari oposizioa egiteko gaitasuna duen alderdirik. Guztiek ukatzen dute proletariotzarentzako politika independentearen beharra. Salbuespenik gabe, haietako batek ere ez dio oposiziorik egiten burgesiaren esparru politikoari eta haren oinarrian den esplotazio ekonomikoari. Hori horrela, parlamentuko hemizikloko diferentziak lausotu egiten dira proletariotzaren kontrako gerra egiteko. Inperialistek garamatzaten hondamendi militarrek dagoeneko sarraskitu zituen ehunka milioi proletario aurreko mendean. Gehiengoa masan antolatzeke gai den organismo bakarra –eta haren interesetan ez da inola ere sartzen gudu-zelaian sarraski bat sortzea nazio baten trapuaren izenean– Alderdi Komunista da. Militarismoaren kritikak efektu egiazki bakezalea sortzeko, ezinbestean lagundu behar dio alderdi horren antolakuntzari. Alderdirik gabe, ez gara militarki errekrutatzeke moduko eskuragarri dauden besoak baino. Hori guztia ikusita, gastu militarren afera klase-borrokaren problema kapitalistaren forma bat da. ●



## OHARRAK

**[1]** Artikulu honetan azaldu ditugun analisi gehienek kapitalismoaren Alemaniako egoera hartzen duten erreferentziatzat. Burgesiaren izaera iraultzaileari, gastu militarren aldaketari edo berrikuntza historikoaren itxura duen edozein elementuren lehenengo adierazpena, egiazki, Britainia Handian dago.

**[2]** Hobsbawm, E. (2009). *La era del imperio*. Planeta. Buenos Aires. 315-316. or.

**[3]** Gunsche, K. & Lantermann, K (2005). *Historia de la Internacional Socialista*. Nueva Imagen.

**[4]** Luxemburg, R. (1913). *La idea del día del trabajo*. Leipziger Volkszeitung. Hemen eskuragarri: <https://www.marxists.org/espanol/luxem/1913/4/a.htm#:~:text=La%20brillante%20idea%20principal%20de,a%20d%C3%ADa%2C%20que%20en%20su>

**[5]** Rodríguez García, J. L. (2014). *El impacto del gasto militar en el mundo: 1950-2013*. Revista de Estudios Estratégicos. 1. zk.

**[6]** Datuak eskuragarri daude hemen: <https://es.statista.com/estadisticas/635107/paises-con-el-gasto-militar-mas-alto/>

**[7]** Stockholm International Peace Research Institute: “Steep rise in European arms imports”. Hemen eskuragarri: <https://www.sipri.org/visualizations/2024/steep-rise-european-arms-imports>

**[8]** El Mundo. Internacional: “18 de los 31 miembros de la OTAN llegarán al 2% de gasto en Defensa este año”. 14 de febrero de 2024. Hemen eskuragarri: <https://www.elmundo.es/internacional/2024/02/14/65cc-9b50e85ece886e8b4589.html>

**[9]** El Economista: “El gasto militar aumenta en España un 62,4% desde la llegada de Sánchez”. 29 de abril de 2024. Disponible en: <https://www.eleconomista.es/economia/noticias/12782086/04/24/el-gasto-militar-aumenta-en-espana-un-624-desde-la-llegada-de-sanchez.html>

**[10]** “Momentuz, Alderdi Sozialistak boterean parte hartzeko modu bakarra bere indar politikoa gobernu burgesari saltzea da. Proletariotzak, klase moduan, ezingo luke ezer irabazi; soilik salmenta hori gauzatzen duten parlamentariak izango lukete zerbait irabazteko aukera (...) Alderdi Sozialistan proletariotzaren emantzipaziorako arma bat ikusten duen edonork indar guztiz egin behar dio kontra klase agintarien ustelkerian parte hartzeari. Modurik izatekotan masak elementu zintzo guztienganako konfiantza galtzeko, proletariotzaren borroka-geruza guztien mespretxua ekartzeko, gure aurrerabidea oztopatzeko, hori Alderdi Sozialistak bloke burges batean parte hartzea da. Horretatik probetxua aterako luketen bakarrak beren buruak goratzeko gure alderdia tranpolin moduan erabiltzen duten horiek dira, hau da, arribistak eta sinekuristak”. (BB, 66)




## ERREFERENTZIAK

**Friedrich, E.** (1975). *Temas militares*. Akal Madrid.

**Kautsky, K.** (1909). *El camino del poder*. Eskuragarri hemen: <https://www.marxists.org/espanol/kautsky/1909/1909-caminopoder-kautsky.pdf>

**Vladimir, L.** (1920). *El Imperialismo, fase superior del capitalismo*. Eskuragarri hemen: [https://www.fundacionfedericoengels.net/images/PDF/lenin\\_imperialismo.pdf](https://www.fundacionfedericoengels.net/images/PDF/lenin_imperialismo.pdf)

**Luxemburg, R.** (1911). *Utopías Pacifistas*. Leipziger Volkszeitung. Eskuragarri hemen: [http://www.archivochile.com/Ideas\\_Autores/luxembr/d/luxemburgorde0008.pdf](http://www.archivochile.com/Ideas_Autores/luxembr/d/luxemburgorde0008.pdf)



# Egin kasu Von der Leyeni: presta gaitezen gerrarako

Testua — **Eli Irazu**  
Irudia — **Manubeltz**

"Azken urteetan, ilusio europar asko txikituak izan dira. BAKE iraunkorra delako ilusioa [...]. Gure ingurura begiratzen dugu, eta argi dakusagu ez dagoela ilusio gehiagorentzako lekurik". Hala zioen, otsailean, Europako Batzordeko presidente Ursula Von der Leyen andereak. Onartu beharra dago: arrazoi du. Zer ikusi dugu azken urteetan? Pobrezia gero eta handiagoa, legearen gogortze bat, Ongizate Estatuaren suntsitze progresiboa, ideia eta talde faxisten zabaltzea; gerra, berriz ere, kontinentean; (beste) genozidio bat gure pantailetan. Joana da gauzak ondo zihoazelako ilusioa. Belztu da ortzi-muga; zahar eta gazteek, denek hitz egiten dute hondamendiaz.

**Batzuetan, zaila da erabakitzea zeinek merezi duten gorroto gehiago: banpiroak bailiran pobreen odolaren gose agertzen diren gerrazaleek, ala limurtzaile gezurtiek, irribarrez, gerraren aurkako zurikeriekin haien erabateko inpotentzia ezkututzen saiatzen direnek. Ez eduki inolako zalantzarik: batzuek zein besteek gerrara garamatzate**

"Goraldian dagoen autoritarioen liga kezkarri baten potentzia eta arriskua ari gara ikusten [...] Eta Europar Batasuneko estatutatu kideak beren defentsa gastuak ere areagotzen ari dira. Haien defentsa nazionalerako aurrekontuak jada %20 igo dira aurreko urtearen aldean". Onartu beharra dago, freskagarria da hain gardenki hitz egiten duen politikari bati entzutea. "Baina askoz gehiago daukagu egiteko. Eta azkar jokatu behar dugu [...] Gerraren arriskua ez da, agian, berehalakoa, baina ez da ezinezkoa".

Lapsus bat izan du Von der Leyen andereak. Ahaztu egin zaio gerra, jada, izan badela. Agian ez du *The New York Times*ek 2023ko abuztuan argitaratutako txostena irakurri, zeinaren arabera Ukrainan hildako soldaduak 70.000 inguru diren, hau da, Zelenskyren gobernuak aurten emandako zifraren bikoitza baino gehiago. Barkatu egingo diogu Von der Leyeni, azkenaldian oso lanpetua dabil eta. Eta orain, gainera, Ekialde Hurbilean egosten ari denaren kezka gehitu zaio! Barkatu diezaiozun ba, zeren eta mezua, azken finean, aski argia baita: gerrara garamatzate.

"Ez daukagu konfortaren luxurik, horixe da egia. Ez daukagu hauteskundeen edo munduko beste leku batzuetako erabakien gaineko kontrolik. Eta, labur esanda, ez daukagu denborarik auzia saihesten ibiltzeko". Gerrara garamatzate Von der Leyen eta bere lagunak, sozialdemokrata nahiz eskuindar, ekologista nahiz liberal. Batzuetan, zaila da erabakitzea zeinek merezi duten gorroto handiagoa: banpiroak bailiran pobreen odolaren gose agertzen diren gerrazaleek, ala limurtzaile gezurtiek, irribarrez, gerraren aurkako zurikeriekin haien erabateko inpotentzia ezkututzen saiatzen direnek. Ez eduki inolako zalantzarik: batzuek zein besteek gerrara garamatzate.

"Erroan [...], ezinbestekoa eta hil ala bizikoa den horren gaineko ardura guk hartzea da kontua. Gure interesak eta gure balioak guk geuk defendatzeko gaitasuna eta borondatea [...] Pauso hau (...) ez da erraza izango. Erabaki kementsuak eta ausardia politikoa eskatuko ditu [...] Alde ona da: lan hau hasia dugu jada". Von der Leyenen bandoak argi dauka zein den bere zeregina. Krisi garaian bizi gara; aldaketa sasoia da. Mundua ez da sekula izango lehen zena, baina hau ez da tristatzeko motiboa. Nostalgia alferrikako sentimendua baita, iraultzaile orok baztertu beharrekoa. "Egia zera delako, ez gara gatazkarekin bizi 2022a ezkerro bakarrik, askoz lehenagotik baizik".

Besoak gurutzatuta geratu behar ote dugu gure anai-arreben aurkako gerra egiten duten bitartean? Haiek hiltzera bidali nahi gaituztela? Ba al dugu, akaso, zer galdurik? Von der Leyen eta bera bezalakoan legea da bizitza mota guztien aurkako ofentsiba etengabea. Gurea, berriz, aske eta berdinen mundua eraikitzeko proiektua. Haiek ematen digute: miseria eta heriotza. Zer emango diegu guk, ez bada gure oposizio sutsuena, gure amorru justua, gure gogo eta gorputzak, haien aurkako arma bilakaturik? "Kontua da jazarleak, gudu-zelaian ez ezik, gizarte osoan zehar garaitzea".

Entzun diezaiozun, adiskideak, Von der Leyen andereari! Egin diezaiozun kasu! Prestatu gaitzen gerrarako! ●






# EUROPAR BATASUNA GERRARAKO BIDEAN

## Suspertze funtsetatik suntsipen funtsetara

---

Testua — **Jose Castillo**  
Irudia — **Zoe Martikorena**



**«Ezin dugu onartu Errusiak gerra irabazterik, estatubatuarren eta europarren interesak kaltetuko dira eta. Horregatik, Ukrainari laguntzea ez da eskuzabaltasun kontua (ukrainar herria maite dugulako): gure interesekoa da»**

Josep Borrell, EBko Kanpo  
Arazoetarako goi-ordezkaria

**«Bakea nahi badugu,  
presta gaitzen gerrarako»**

Europako Kontseiluaren 2024ko  
martxoaren 5eko prentsa-oharra

**A**rtikuluari hasiera ematen dioten ai-puok azken hilabeteetako Europako testuingurua laburbiltzen dute. Europar Batasuneko (EB) eta estatu kideetako agintari handiak herritarrei mezu belizistak bidaltzen ari zaizkie etengabe, eta prentsak berehala hartu du lekukoa: gerra-hotsa hedatu du, eta herritarrak borrokarako prestatzeko, edota, gutxienez, etorkizun hurbilean hartuko diren neurri ekonomiko eta sozial belikoak onartzeko giroa sortzen ari dira.

Baliteke historian interes handiena duten horiek harriztea EB bezalako agente batek gerrakanpaia jo dituelako; izan ere, teoriarik behintzat, Europaren integrazio-prozesua gerra edozein modutan saihesteko sortu zen. Robert Schumanek, gerora EB izango zenaren aita fundatzaile izan hartuak, hitz hauek idatzi zituen 1950ean Europako herrialdeen batasunari buruz, batez ere Frantzia eta Alemaniari buruz: “Hain denbora luzean armak fabrikatu dituzten eskualde horien patua aldatu egingo da, beraiek izan baitira lehen biktimak”<sup>[1]</sup>.

Zer gertatu da, orduan, berriro ere honaino iristeko? Etorkizunean “beraiek izango dira lehen biktimak” esaldia errepikatu nahi al dute?

## **EB ETA GERRA IKUSPEGI HISTORIKOTIK**

Gerra eta gerra-ekonomia ezinbesteko kontra-joera dira ekoizpen kapitalistaren barne-kontraesan historikoak gainditzeko: kapitala suntsitu eta ondoren berreraikitzeak industria giltzarri batzuk aktibatzen ditu, eta herrialde irabazleei bultzada ematen die aurrerapen teknologikoei dagokienez. Hala ere, ez da pentsatu behar zuzeneko lotura mekaniko bat dagoenik krisiaren eta gerraren artean: buruzagi politiko eta militarrek ez dira irabazitasaren beharrezko joeran pentsatzen ari beren armadak mobilizatzeko orduan. Hala ere, kapitalismoak epe luzera dituen berezko joerak nahitaez aditu behar ditugu gerrak sortzeko testuingurua ulertzeko<sup>[2]</sup>.

EBk bloke ekonomiko gisa duen helburua Europako kapitalek munduko merkatu kapitalistan duten posizioa bermatzea bada, galde daiteke zergatik ez den armada bateratu bat sortu Europaren integrazio-prozesu luzean zehar. Baditu gobernantza ekonomiko eta politikoko erakundeak, hala nola Europako Banku Zentrala, Europako Inbertsio Bankua edo Europako Batzordea eta Parlamentua, baina bloke geopolitiko kapitalista handi bakoitzari misio honetan kapitala metatzen lagunduko dion armada handi bat badagokio, zergatik ez du EBk horrelakorik?

Galdera horri erantzuteko 1950eko hamarkadara jo behar dugu, orduan eman baitziren Europako integrazio-prozesuaren lehen urratsak. Gogoratu behar dugu prozesu horren lehen etapetan AEBk funtsezko zeregina izan zuela, Marshall Planaren bidez Europako herrialdeak berreraikitzeke finantzatzailer nagusia izan baitzen Bigarren Mundu Gerraren ondoren. Gainera, AEB gerratik manufaktura-potentzia kapitalista handi gisa ateratzen, eta merkatu europar batu bat komeni zitzaion bere erosle eta bazkide komertzial nagusia izan zedin. Baina inola ere ez zitzaion komeni integrazio hori ekonomiaren esparrutik haratago joatea. Ordurako, AEBk NATOren alde egin zuen: berak zuzenduko zuen aliantza militarra, eta Europako defentsa militarren buru izango zen<sup>[3]</sup>.

NATOk Europarekiko hartutako lidergo militarren erabaki horrek tentsioak eragin zituen, batez ere, Frantziarekin (Europako potentzia militar kontinental handia). Frantziako Estatuak arma nuklear propioak garatu zituen estatubatuarren laguntzarik gabe, eta 1966an erretiratu ere egin zen NATOren aginte militarretik, Charles de Gaulle jeneral ohia presidente zela. Erabaki hori 2009. urtera arte mantendu zen; hala, urte horretan Nicolas Sarkozy presidenteak berriz txertatu zuen Frantzia Aliantza Atlantikoaren aginte militarrean.

Hala ere, Frantzia alde batera utzita, Europako ezin herrialdek ez zuen NATOren aginteari erantzuteko gaitasun politiko eta militarrik izan XX. mendearen bigarren erdian. Horregatik, Europako integrazio-prozesu osoa bateratze ekonomikotik garatu zen, eta ez batasun militarren bidetik. Azken hori, NATOren bidez, AEBren esku utzi zen. Prozesu horren bidez, Mendebaldeko Europa munduko bigarren bloke geoekonomiko garrantzitsuena bihurtu zen, AEBren atzetik eta haren babes militarrean. Gainera, Europak ez zuen nahitaez parte hartu behar Osaba Samek abiarazitako abentura beliko guztietan.

## **Gerra eta gerra-ekonomia ezinbesteko kontrajoera dira ekoizpen kapitalistaren barne-kontraesan historikoak gainditzeko: kapitala suntsitu eta ondoren berreraikitzeak industria giltzarri batzuk aktibatzen ditu, eta herrialde irabazleei bultzada ematen die aurrerapen teknologikoei dagokienez**

Azken puntu hori garrantzitsua da, ez baita ulertu behar EBk beti izan duenik NATOrekiko (eta, beraz, AEBrekiko) zuzeneko mendekotasunik. Aitzitik, nazioarteko harreman kapitalistak etengabeko tentsio interkapitalistek zeharkatzen dituzte, baita *a priori* aliatuak diruditen herrialdeen artean ere. Horren adibide izan daiteke Europako moneta bateratua, euroa, sortzeko prozesua: AEBk ez zuen horrekiko aldeketasun handirik erakutsi, dolarraren nagusitasuna arriskuan jarri baitzezakeen (munduko merkataritzaren eta finantzen erreferentziako dibisa). Euroaren sorreraren garaian, 1990eko hamarkadan eta 2000koaren hasieran, eta ez kasualitatez, AEB Europar Batasuneko herrialdeak bi gerratarara eramaten saiatu zen: Jugoslaviakora eta Ekialde Hurbilekora, batez ere Iraken eta Afganistanen gertatzen ari zenera <sup>[4]</sup>.

Europako herrialdeek Washingtonetik gehiegizko autonomia garatu izan dutenetan, AEBko inteligentziak horiek diziplinatzeko erabili izan du gerra. Europako elite politiko-ekonomikoak jakitun dira tentsio horretaz, baina behin Gerra Hotza amaituta eta sobietarren hedapenaren arriskua atzean utzita, horietako askok ulertu izan dute mundua multipolarra izateak mesede egin diezaiekela. Horixe da Irakekin gertatutako kasu paradigmaticoa: 2000ko hamarkadaren hasieran, Sadam Husseinen agindupean, Irakeko petrolio-erreserba handiaren zati bat eurotan merkaturatzen hasi ziren, dolar estatubatuarren kaltetan. Erabaki geopolitiko horrek mesede handia egin zion sortu berri zen dibisa europarrari; horregatik, Frantziak eta Alemaniak, EBko estatu lider nagusi gisa, ez zuten babestu AEBk Iraken esku hartzea <sup>[5]</sup>.

Hala ere, esan daiteke Europako buruzagi askok Gerra Hotzaren ondorengo garaian zuten ikuspegia geopolitikoki inuzentea zela. Izan ere, Europako potentzia handiek bloke ekonomiko eta monetario indartsu gisa sendotzeko apustua egin zuten, euroa sortuz eta Alemania Europako potentzia esportatzaile handi gisa batuz. Baina, aldi berean, pentsatu zuten behin Sobietar Batasuna erorita gastu militarren zati handi bat beste sektore batzuetara desbidera zitezkeela, non, eta Ekialdeko blokeko herrialdeetan merkatu handiak irekitzen ziren mundu batean. Hala, mende berriaren hasieratik 2010eko hamarkadaren bigarren erdira arte, demilitarizazio erlatiboa gertatu zen EBn eta estatu kideetan.

Nazioarteko Harremanetarako Frantziako Institutuak berriki egindako ikerketa baten arabera, 1991 eta 2021 artean EBko herrialdeek %66 murriztu zuten tanke operatiboen erreserba, %45 ehizahegazkinena eta %25 itsas-flotarena <sup>[6]</sup>. Frantziak ere, nahiz eta EBko potentzia militar nagusia izaten jarraitu, joera bera izan du: tanke erabilgarrien kopurua 1.349tik 222ra jaitsi du, ehiza-ontzien kopurua 686tik 254ra eta gerraontzien kopurua 41etik 19ra. Militarrei dagokienez, urte horien artean, Frantziako Estatuak %55 murriztu zituen bere armada eta zerbitzu paraleloak, eta haietako langile aktiboak zehazki 453.000 kidetik 203.000ra jaitsi.



Horrek ez du esan nahi EBk ikuspegi militar komuna ez duenik: 1999an Amsterdamgo Ituna indarrean sartu zenetik, EBren Segurtasun eta Defentsa Politika Komuna dago; horren ardura Europar Batasuneko Atzerri eta Segurtasun Politika Erkideko goi-ordezkariek du –gaur egun, Josep Borrellen esku dago kargu hori–. Hala ere, EBren armada komuna garatzeko aurrekontu militarra nahiko mugatua da, urtean 30 milioi euro ingurukoa. Gainera, EBren fundazio eta itun gidari guztietan aipatzen da Europako defentsa politika NATOren esparruan hartutako estrategien mende egongo dela une oro.

Horrela, Ukrainan tentsio geopolitikoak hasi baino lehen, 2014an AEBren interesen aldeko estatu-kolpea eman zutenean, EB krisi ekonomiko beteen zegoen: borrokarako prestatu gabeko armada nazionalak zituen, eta, beharrezko egitura militar bateratuak izan beharrean, estatu bakoitza bere aldetik zihoan arlo militarrean. Hain zuzen ere, Baltikoko eta Europako ekialdeko herrialdeek nahiago dute beren defentsa militarra zuzenean NATOren menpe egotea; aldiz, Mendebaldeko estatuetan –adibidez Frantzia, Alemanian eta Espainian–, EBk “autonomia estrategikoa” bilatu beharko lukeela diote. Iritzi hori are gehiago indartu zen Donald Trumpen agintaldian.

#### **EUROPA BERRARMATZEKO PLANA**

Europako eliteek Gerra Hotzaren osteko geopolitikari buruz izan zezaketen ikuspegi inozentea lurrunduta geratu zen 2000ko hamarkadaren hasieran, AEBk Afganistan eta Irak inbaditu zutenean. 2007an, Lisboako Tratatu sinatu zuten, EBko erakunde erkideak sendotzeko orain arte egindako urratsik handiena, eta estatu kide guztiek beren gaitasun militarrek pixkanaka hobetzeko konpromisoa hartu zuten.

## **Europako herrialdeek Washingtonetikiko gehiegizko autonomia garatu izan dutenetan, AEBko inteligentziak horiek diziplinatzeko erabili izan du gerra**

Hala ere, 2010eko hamarkadan, EB krisi ekonomikoaren kudeaketan eta Mediterraneoko hegoaldeko herrialdeei aplikatutako doikuntza-planetan zentratuta egon zen nagusiki. Horregatik, ikus daiteke berrarmatze-plana urgentziaz eta inprobisazioz gauzatzen ari dela. Ukrainako gerraren balizko hedapenaren testuinguruan, EBk ikusten du ez duela gaitasun militar edo industrialik eskala handiko gerra luze bati eusteko. Hori dela eta, NATOren erabakiek eta AEBren interes geopolitikoekin bat etorri da. EBk badaki bere gaitasun belikoa AEBren ezkutuaren pean egotearen mende dagoela, baina, aldi berean, beldur da Trump berriro presidentetzara iritsiko ote den, eta horrek EB Errusiaren aurkako borrokan bakartuago utziko ote duen.

## **EBren fundazio eta itun gidari guztietan aipatzen da Europako defentsa politika NATOren esparruan hartutako estrategien mende egongo dela une oro**



# EBk ikusten du ez duela gaitasun militar edo industrialik eskala handiko gerra luze bati eusteko. Hori dela eta, NATOren erabakiekin eta AEBren interes geopolitikoekin bat etorri da

EBko estatuburu edo gobernuburu guztiak ordezkatzen dituen Europako Kontseiluaren 2024ko martxoaren 19ko prentsurrekoak ondo laburtzen du Europako erakundeek etorkizun hurbilean eremu militarrean hartuko duten estrategia. Komunikazio horretan, EBko liderrek jakinarazi zuten zeintzuk diren EB gerra-ekonomia moduko batean sartzeko hiru zutabeak: Ukrainari laguntza militarra eta munizioak ematea, Europako industria militarren modernizazioa funts publikoen bidez finantzatzea eta hemendik 2030era bitarte Europako industriari egindako erosketak bikoiztea. Horrekin, NextGenEU suspertze-funtsek izan ez duten eragin ekonomikoa eragin nahi du EBk: eskala handiko enplegu egonkorrak sortzea eta estatu kide guztien hazkunde ekonomikoa finkatzea.

Baina EBk eta AEBk arazoak dituzte gaur egun Ukrainari laguntza militarra emateko erritmoari eusteko. *Financial Times* egunkariak berriki egindako kalkulu baten arabera, desberdintasun handia dago Errusiako eta Mendebaldeko munizio-ekoizpenaren artean. Errusiako artilleriako munizioaren ekoizpena urteko 800.000 jaurtigai izatetik urteko 2,5 milioi izatera igaro da, edo 4 milioi, berregokitutako jaurtigaiak barne hartuz gero. EBren eta AEBren ekoizpen-ahalmenak 700.000 eta 400.000 ingurukoak dira, hurrenez hurren, baina EBk 1,4 milioira iritsi nahi du urte honen amaieran, eta AEBk 1,2 milioira <sup>[7]</sup>.

EBko liderrek badakite, Errusiari pulstu militarra mantentzeko, Ukrainak balak, misilak eta zeruak kontrolatzeko aireko defentsa-sistemak behar dituela, eta presa daukala. Hala, Ukrainari armak erosteko, EBk Europako aurrekontua erabiliko du, baita Errusiari jarritako zigorren ondorioz ibilgetutako finantza-aktiboetatik eskuratutako irabaziak ere. Hala ere, oraindik ez dago argi igoera horrek Ukrainako lurretara tropak zuzenean bidaltzea ekarriko ote duen, eta hori NATOko kideen eraso bateratu gisa uler lezake Errusiak.

Gerra-egoera baterako prestatzeko, EBk *de facto* aldatuko ditu bere sare industrial-produktiboaren funtsezko alderdiak eta, beraz, estatu kide guztiei eskatu die “defentsarako prestatzeko kultura integratzeko politika guztietan”. Europako Defentsa Industriaren Estrategia (EDIS), aurtengo martxoan aurkeztua, Europako birmoldaketa ekonomikoa handiena izango da euroa indarrean sartu zenetik. Legegintza-ekimen berri horrek epe laburreko larrialdi-neurriak hartuko ditu, 2023an hartu eta 2025ean amaituko direnak, bai eta epe luzeagokoak ere, Europako industria militarra datozen hamarkadetarako prestatzeko. Hiru dira puntu nagusiak: lehena, gutxienez defentsa-ekipoaren %40 EBko estatu guztien artean erostea 2030erako; bigarrena, estatu kideen arteko merkataritza militarra indartzea, 2030erako EB barruko merkataritza militarren balioa gutxienez EBko arma-salmenta guztien %35 izango dela bermatuz; eta hirugarrena, Europako armagintza-industriari erosten zaiona bikoiztea, etengabe aurrerapausoak emanez, eta 2030erako erosketak militarren aurrekontuaren gutxienez %50 eskuratzea, %60 2035erako.

Helburu horiek lortzeko, industria militarrek finantzaketa publikoa zein pribatua eskuratzeko bideak erraztuko dituzte Europako erakundeek. EB bera ere planteatzen ari da covid-19aren suspertze-funtsak finantzatzeko jaulkitako eurobonuen antzekoak jaulkitzea, baina kasu honetan berrarmatzea finantzatzeko. “Pandemiaren osteko berreraikuntzarako erabil badaitezke, Ukrainaren suntsipena saihesteko erabil daitezke”, adierazi du berriki Josep Borrell EBko kanpo-politikaren arduradunak. Aitzitik, zor komunagatik jaulkitako funts horiek oraindik ez dira errealitate bat; izan ere, Europar Batasuneko herrialde zentralek eta eskandinaviarrek, zerga-austeritatearen aldekoenak, oraindik ere nolabaiteko errezeloz ikusten dute berrarmatzearen pisu guztia Europako zor publikoari kargatzea.

Adostasuna badago zenbait arlotan, hala nola industria militar kontinentalean zuzenean inbertitzeko Europako Inbertsio Bankuaren –Nadia Calviño Espainiako presidenteorde ohiak gidatua– estatutuak aldatzean. Beraz, pandemiaren ostean egindako promes hura –funtsek, Estatuaren esku-hartze bidez, birmoldaketa ekologiko eta teknologikorako hazkunde ekonomikoa sustatzeko balioko zutela–, egiaz beste zerbait bilakatu da: agertoki berri horretan, Estatuaren edo Europa den superestatuaren esku-hartzea kapital militarra modernizatzerantz bideratuko da.

### LEHIA ETA KEYNESIANISMO MILITARRA

Industria militarra industria bereziki partikularra da gizarte-harreman kapitalisten barruan. Izan ere, bere eskaintza eta eskaria ez daude zuzenean merkatuaren mende; aitzitik, estatua da armamentu-ekoizpenaren prozesua hasteko eta erreproduzitzeko aukera ematen duena, armamentuaren bezero eta eskatzaile nagusia baita. Baina estatu batzuek besteek baino eskari handiagoa dute eta, horri esker, arma-industria lehiakorragoa sor daiten haien barruan.

Azken hori da AEBren eta bere industria militarren kasua. AEBko industria militarrek kontratu iraunkorrak eta milioi askokoak izan ditu, eta Europakoak, berriz, ez. Izan ere, AEB beti egon da gerran edo gerran egon diren bigarren estatuei laguntza zuzena ematen, Israeli kasu. Horregatik, munduko hamar armamentu-enpresa nagusien rankingean bost estatubatuar agertzen dira, eta horietako hiru rankingean buru daude: Lockheed Martin, RTX Corporation eta Northrop Grumman. Aldiz, Europako bakarra ageri da rankingean, Leonardo S.p.A enpresa italiarra, eta sailkapen horretan hamagarren tokian dago.

Hori aldatzen saiatuko da EBren defentsa-industriaren estrategia berria, eta erosketak militarreko boterea Europako Batzordean zentralizatuko du. Armamentua kanpoan erosteak ez du aukerarik ematen inbertsioa berrabiarazteko eta Batasunean lanpostuak sortzeko; horregatik, armagintza propioa indartu nahi da. Esan liteke Europa berrarmatzeko planak ongizaterako itun sozial berri bat izan nahi duela, baina oraingoan gerrako itun sozial bat.

Dagoeneko hasi da armamentu-enpresei diru publikoa transferitzen. Alemaniako armamentu-enpresa nagusiak, Rheinmetallek, 130 milioi euro baino gehiago jaso ditu jada aurten EBko funtsetatik, artilleriaren sektorean ekoizpen-ahalmena handitzeko. Era berean, 2023ko urrian, Alemaniako Gobernuaren lehiaketa bat irabazi zuen Ukraina droneak hautemateko sistemez hornitzeko; azaroan, Ukrainari 25 Leopard 1A5 tanke eta bost ibilgailu blindatu ematea sinatu zuen; azkenik, aurtengo otsailean, Alemaniako beste enpresa batekin akordio bat iragarri zuen Ukrainako lurtean bertan munizio-fabrika bat sortzeko. Enpresa horrek bost aldiz biderkatu ditu bere salmentak azken bi urteetan, eta gaur egun Alemaniako burtsan gehien kotizatzen duen enpresetako bat da.

Enpresa- eta geopolitika-lehiaz gain, EBk Errusian aplikatutako gerra-ekonomiaren adibidea du ekialdeko mugan, eta badirudi emaitza onak ematen ari zaizkiola Errusiari, epe laburrean behintzat. 2024ko otsailean, Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) Errusiako ekonomiaren indarra nabarmendu zuen, eta aurtengo hazkunde-aurreikuspena %1,1etik %2,6ra hobetuko duela esan zuen. Nazioarteko Diru Funtzaren datuen arabera, potentzia euroasiarraren ekonomia G7ko estatu guztietakoa baino azkarrago hazi zen iaz, eta 2024an ere horretan dihardu. Era berean, soldatak maximo historikotara heltzen ari dira, armada eta bere industria bultzatzeko lan-indarraren eskasiagatik eta gizarteko geruza proletarizatuenen mobilizazioagatik.

Orain arte, gerra-ekonomia hori Errusiako Gobernuaren aurrekontu-defizitarekin ordaindu da, azken bi urteetako gastu militarra hirukoiztu baino gehiago egin baitu, SESBren Gerra Hotzaren garai-ko gastu militarrean hurbilduz. Hala ere, Errusiako politikan adituek berriki egindako ikerketa batek, Kremlinarekin Ogasun Ministerioak argitaratutako txosten estrategikoetan oinarrituta, ondorioztatzen du Errusiaren plana defizita eta Gobernuaren zorra gastu militarrekin gehiegi ez kargatzea dela<sup>[8]</sup>. Hori dela eta, gastu sozial jakin batzuk murriztuko dira eta zergak igoko zaizkie beste sektore ekonomiko batzuei gerra-gastua ordaintzeko, krisi-garai-ko logika keynesiar klasikoaren kontrara.



## **Esan liteke Europa berrarmatzeko planak ongizaterako itun sozial berri bat izan nahi duela, baina oraingoan gerrako itun sozial bat**

Michael Roberts ekonomialari marxistak gogorarazten du Errusiako gerra-ekoizpena ez dela batera emankorra epe luzearako kapitala metatzeko<sup>[9]</sup>. Errusiako benetako BPGaren hazkunde potentziala ez da, ziurrenik, urtean %1,5 baino handiagoa izango; izan ere, hazkundea Errusiako ekonomia-aren gainberotzeak mugatzen du, inflazio-presioak sortzen ari baitira. Horrez gain, eskulan kualifikatua falta da, eta inbertsio- eta produktibitate-tasa txikiak daude. Horregatik, keynesianismo militar errusiarra murrizketa sozialetan oinarrituta finantzatu da hurrengo urteetan, eta baliteke soldadigoerak ibilbide laburrekoak izatea.

EBko gerra-ekonomia termino berberetan diseinatu da; izan ere, Europako estatu handiek dagoeneko iragarri dituzte gastu soziala murrizteko planak, hori gastu militarera bideratzeko. Frantziako Macronen Gobernuak duela gutxi iragarri zuen aurtengo kontuetan 10.000 milioi euroko murrizketa ezarriko zuela gastu publikoan, eta langabezia-subsidioak eskuratzeko baldintzak gogortuko zituela. Bestalde, Alemaniak krisi industrial handia bizi du bere ekonomiari Errusiako energiako sarbidea moztu zaiolako; horrela, partida sozial guztiak murrizten dituzten aurrekontuak onartu ditu. Bitartean, Alemaniako gastu militarra nabarmen ari da hazten, NATOk eskatu bezala, BPGaren %2ra iristeko.



ixiluneak

herioa

ezkutatzeko

58 Batallas olvidadas

# **Ezker jakin batek keynesianismo militarra ongizate-itun sozial hori berrargitaratzeko azken aukeratzat har dezake. Estatuaren gastu belikoak enplegua eta soldata-igoerak ekar ditzake epe laburrera, baina gizartearen produkzio-oinarria ez aldatzeaz gain, epe ertain-luzerako joera suntsitzaile kalkulazina sortzen du**

## **EZKERRA ETA KEYNESIANISMOAREN FETITXEA**

Ezker berriak, sozialdemokrazia klasikoaren ezkerrean egongo litzatekeenak, teorikoki eta politikoki argudiatzen du pandemia osteko egoeran Estatu berriz ere bihurtu dela ekonomia arautzeko eragile. Ez du ulertu Estatuak ez ziola inoiz utzi gizarte-harreman kapitalistak arautzeari, eta gastu sozial handiagoak ez duela zertan gizarte-politike-tan gastu handiagoa ekarri. Hala, Europako suspertze-funtsak eta Green New Deal Bigarren Mundu Gerraren osteko ongizate-itun moduko bat berrezartzeko balio behar duten tresna gisa ikusi dira, baina horien emaitzak nahiko urriak izan dira.

Ikuspegi horren aurrean, ezker jakin batek keynesianismo militarra ongizate-itun sozial hori berrargitaratzeko azken aukeratzat har dezake. Estatuaren gastu belikoak enplegua eta soldata-igoerak ekar ditzake epe laburrera, baina gizartearen produkzio-oinarria ez aldatzeaz gain, epe ertain-luzerako joera suntsitzaile kalkulazina sortzen du. Postrerik goxoa baina kalorikoena egiten duen sukaldariak bezala, armak kantitate handian ekoizten dituen ekonomia batek sarraskiak eta eskala handiko suntsipena sortzeko erabiliko ditu arma horiek.

Horregatik, moderatuagoa irudi lezake Pedro Sanchezen Gobernuak gerra-hotsaren aurrean egindako proposamenak. Azken horrek proposatu zuen armen ekoizpenak gainerako ekoizpen-sarea teknologizatzeke balio izatea, armamentu militar hutsean soilik zentratu gabe. Hala ere, hori gerra-industriaren ondorio bat da, berez; izan ere, gerra gutziek modernizatu dute ekoizpen-sarea, baina aurreko kapitalen eta giza bizitzaren itzelezko suntsipenaren kontura.

EB sozialago baten kontaketari dagokionez, paradigmaticoa da Xan Lópezek, Sumar alderdiaren inguruko adierazle intelektual nagusietako batek, bere blog pertsonalean argitaratu zuen azken testua, “Tres historias financieras (y una coda climática)”. Bertan, argudiatzen zuen klima-aldaketa geldiaraztea errentagarria izan behar zela, botere legegiletik independenteak ziren erakundeek, hala nola Banku Zentralak, ezohiko diru-politiken bidez finantzatzearen aldeko apustua egin zezaten. Hala ere, azken gertakarien argitan, esan dezakegu Europako diru-agintarien berehalako apustua dela arlo sozialeko austeritate fiskalera eta arlo militarreko gastuaren hedapenera itzultzea. Beraz, ezkerrearen ongizate-estatu sozialaren itzulerari buruzko amets hezeak oso urrun gelditzen dira.

Gainera, kasu empirikoak ditugu agintean da goen ezkerrearen eta gastu militarren arteko harremanaren inguruan. Izan ere, Espainiako eta Alemaniako estatuetan, alderdi sozialdemokratak ari dira historiako aurrekontu militaristenak zuzentzen. Eta, lehenago, Syriza “ezker erradikalak” gobernu-boterea lortu zuenean Grezian, ez zuen hautsi herrialde heleniarrak AEBekin eta bere arma-enpresekin izenpetutako akordio militarretako bat ere. Izan ere, Syriza boterean izan zen bitartean, eskatutako gastu militarra betetzen zuen NATOk lau kideetako bat izaten jarraitu zuen Greziak, eta BPGaren %3 baino gehiago gastatu zuen parekorik gabeko murrizketa-garai batean. Era berean, Greziak EB osoko arma-inportatzaile handiena izaten jarraitu zuen, bere BPGarekiko proportzioan. Syriza 2015eko apirilaren hasieran sinatu zuen armak erosteko eta modernizatzeke azken hamarkadako akordiorik handiena Lockheed Martin konpainia estatubatuarrekin, 464 milioi euroko balioarekin.

## ONDORIOAK

Ondorioz, gerra-ekonomiaren dimentsio ekonomikoak krisian dauden Europa erdialdeko estatuen zenbait aurreikuspen ekonomiko hobetu ditzake, lan-indarra arrastatzeko duen ahalmenagatik eta horrek dakarren industria-berrikuntzagatik, baina epe luzera, balorizazioari dagokionez sektore koiunturala eta ez-produktiboa denez, ez ditu Europako krisi ekonomiko luzearen sakoneko arazoak konponduko. Bestalde, dimentsio geopolitiko eta geoestrategikoa dago, eta esparru horretatik EB oso gaizki atera daiteke nazioarteko gerra pizten bada, batez ere Europako lurretan borrokatuko bailitzateke, eta horrek kalkulazina den suntsiketa eragingo luke.

Gerra hipotetiko hori hasi baino lehen ere, Europa Washingtonen interesetara zuzenean itzultearen ondorio negatiboak jasaten ari da. Izan ere, Europako ekonomia nagusia, Alemania, eremu geoekonomiko euroasiarrarekin —bereziki Errusiarekin eta Txinarekin— duen deskonexioaren ondorioak pairatzen ari da. Hala, Txina zen EBtik kanpoko merkatu nagusia potentzia esportatzaile germaniarrarentzat, eta Errusiak energia-hornidura segurua eta merkea ematen zion. AEB harreman euroasiarra hausten saiatzen ari da, bere interes hegemonikoetarako arrisku potentziala zelako.

Azkenik, ezker parlamentarioak ez dio oposizioarik egin gaur egun eratzen ari den politika belizistari. Are gehiago, politika horrekin erabat lerrokatuta dago praktikan, nahiz eta zenbait kexu diskurtsibo egin ditzakeen. PSOEn eta Unidas Podemosen gobernupean, NATOren azken urteetako goi-bilerarik garrantzitsuen egin zen Madril, eta, bertan, Aliantza Atlantikoko kide guztiak berrarmatzea adostu zen, Mendebaldearen nagusitasuna zalantzan jartzen duten potentzien aurka gerrarako prestatzeko. Gobernu horretan bertan zigilatu ziren Espainiako Estatuan diktadura frankista amaitu zenetik gastu militar handiena zuten aurrekontuak. Eta PSOEn eta Sumarren artean berriz osatutako Gobernu, Joe Biden “aurrerakoiaren” Gobernuaren are menpekoagoa dena, ez da gai Israelgo Estatuaren aurkako neurri praktikorik hartzeko herri palestinarraren aurka irekitako genozidio baten erdian. Horrez gain, ez da ahaztu behar NATOren berrarmatze politika hitzez hitz jarraitzen duela.

## Ezker parlamentarioak ez dio oposizioarik egin gaur egun eratzen ari den politika belizistari. Are gehiago, politika horrekin erabat lerrokatuta dago praktikan, nahiz eta zenbait kexu diskurtsibo egin ditzakeen

Jakina, ez digute gerraren alternatibarik ekarriko botere geopolitikoaren arteko orekaren birdefini-zioko testuinguru honetan egoera honela ulertzen duten alderdiek —nahiz eta ez esan argi eta garbi—: beren estatu-proiektuen etorkizuna NATOkin haiei egin diezaiekeen defentsa militarren mendekoa dela. Gaur egun interes horietatik independentea den ikuspegia izatea da gerra-tentsioak gero eta handiagoak izatetik eta horren ondoriozko giza kostu kalkulazinetatik salba gaitzakeen bakarra. Horixe da dagoeneko basakeria kutsua duen gerra-goraldi batetik salba gaitzakeen bakarra; egunero Gazatik iristen diren irudiei begiratu besterik ez dago izugarrikeria horiek Europako gure ateak jo arte. ●





## MUNSTRO? NORK ESAN ZUEN?

### OHARRAK

<sup>[1]</sup> Robert Schumanek, Frantziako Kanpo Arazoetako ministroak, Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa sortzea proposatu zuen. Komunitate horretako kideek ikatzaren eta altzairuaren ekoizpena bateratuko zuten, material horiek funtsezkoak baitziren gerra-ekoizpenerako. Haren hitzak “Schuman Adierazpena” izenez pasatu ziren historiara, eta oso-osorik irakur daitezke Europar Batasunaren webgunean.

<sup>[2]</sup> Gerraren eta kapitalismoaren arteko harremanari buruzko laburpen on bat: Gill, L. (2022). *Fundamentos y límites del capitalismo*, Madrid, Instituto Marxista de Economía.

<sup>[3]</sup> Europako integrazio-prozesuaren historiari buruz honako hau kontsulta daiteke: Anderson, P. (2012). *El nuevo viejo mundo*, Madrid, Akal.

<sup>[4]</sup> Euroaren historia geoekonomikoa hemen kontsulta daiteke: Montes, P. (2001). *Una historia inacaba del euro*, Madrid, Trotta.

<sup>[5]</sup> Irakeko inbasioari eta hark euroarekin/dolarrekin duen harremanari buruz: López Torres, J. (2003). “El euro, el dólar y la crisis de Irak”, *Temas para el debate*, 102, 74-75 or.

<sup>[6]</sup> Aipatutako azterlanaren laburpena argitalpen honetan kontsulta daiteke: “Defence key figures – 2021” Frantziako Defentsa Ministerioa (online eskuragarri).

<sup>[7]</sup> Ukrainako gerraren egoera militarri buruz, *Financial Times* aldizkariko erreportajea: “Visual analysis: Ukraine’s war of survival enters third year”.

<sup>[8]</sup> Ischenko, V.; Matvéyev, I. y Shuraviév (2024). “Keynesianismo militar ruso: ¿quién se beneficia de la guerra en Ucrania?”, *Viento Sur*, 2024ko apirilaren 4a (online eskuragarri).

<sup>[9]</sup> Roberts, M. (2024). “Rusia y la economía de guerra de Putin”, *Sin Permiso*, 2024ko martxoaren 17a (online eskuragarri).

HISTORIA  
ERREPORTAJEA

# Gerra- ekonomia eta keynesianismoa

\*

**Mikel Bartolomé**



**«Zertan gasta lezake gobernuak  
dirua, sistema gelditasunaren  
lohian hondora ez dadin? Armak  
eta armak, eta arma gehiago»**

**Paul A. Baran & Paul Sweezy**



**T**radizio marxistan –garapen teoriko eta ekintza iraultzailearen esperientzia historikoaren kondentsazio gisa ulertuta–, oso gai gutxi izan dira gerra bezain garrantzitsuak. Lehen Mundu Gerrako testuinguruak sozialdemokraten eta komunisten arteko haustura historikoa ekarri zuen, hau da, gerra inperialistan burgesia nazionala babesten zutenen eta proletariotzaren internazionalismoa defendatu zutenen artekoa. Gainera, gerra-komunismoa delakoaren sorreran, 1918aren hasieran, ekonomia sozialistaren baldintzak gartzeko lehen urratsak eman ziren. SESB sortu berria –Herri Langile eta Esplotatuaren Eskubideen Adierazpenean zein Lurraren Sozializazioaren funtsezko Legean jasotzen denez– baliabide naturalen jabetza pribatua deuseztatzeko lehen saiakera historikoa izan zen, eta gizakien arteko esplotazio oro abolitzeko funtsezko eginkizuna seinalatu zuen.

Baina ez hori bakarrik, estrategia politikoak ezartzeko orduan errealtatea ulertzea ezinbestekoa den heinean, marxismoa beti saiatu da azpimarratzen gerrarako beharra, joera historiko kapitalistek ondoriotzat dakartena. Horrela, gaur egun gerraren jatorriaz egiten duten deskribapenaren aurka, hau da, gerra pertsona maltzur batzuen borondatearen ondoriotzat ulertzea, inperialismoaren analisi leninistak ahalbidetzen du gerra eta bere jatorria ulertzea metaketa kapitalistaren garapenaren kontraesan immanenteen ondorio modura.



## Kapitalaren nazioarteko lehiaren ondorio inmediatea da kapital globalaren fakzioek hegemonia lortzeko borrokan duten gatazka

### INPERIALISMOA EDO GERRAREN BEHARRA

Leninek inperialismoa kapitalismo modernoaren garapen-fase gisa deskribatu zuen, non lehia interkapitalista neurrigabea eragiten duten kapitalaren kontzentrazioak eta zentralizazioak, eta estatuak, kapital nazionalaren ordezkari politiko moduan, munduko lurraldeen banaketa politiko eta ekonomikoaren alde borrokatzen diren. Kapitalaren nazioarteko lehiaren ondorio inmediatea da kapital globalaren fakzioek hegemonia lortzeko borrokan duten gatazka<sup>[1]</sup>. Lehia mundu mailako ekonomia kapitalistaren funtsezko ezaugarria da eta, horregatik, bloke kapitalisten arteko lehia dagoen bitartean, gatazkarako beharra egongo da. Eta hori konpontzeko beste biderik ez dagoenean, erarik gordinenean lehertzen da: gerra gisa. Leninek berak honela deskribatu zuen Lehen Mundu Gerra: “Gerra inperialista bat, munduaren esplotazio politiko eta ekonomikoan ardaztuta egin dena eta helburu duena merkatuen, lehengai-iturrien eta Kapitalaren inbertsio-eremuen inposizioa”.

Gerrak beti sortu dira –eta oraindik ere sortzen dira– erabaki politikotatik. Iraganean, nobleziaren babesari eusteko beharretik edo erlijio-zein arraza-menderatzea inposatzeko nahitik zetorren haren funtzioa; gatazka modernoek, aldiz, beste lurralde batzuetan kapitala inbertitzeko baldintza mesedegarriak sortzea izan ohi dute helburu, modu esplizituan edo ez hain esplizituan. Hala ere, helburu politiko-ekonomikoak alde batera utzita ere, aurreko gerretan gertatu ez ziren egiturazko baldintza batzuk ageri dira bi mundu gerretan. Hitz gutxitan, bi mundu gerrak *gerra-ekonomiaren* adierazpen gorenaren izan ziren.



### GERRA-EKONOMIA

James K. Galbraithek, azken hamarkadetako ekonomia keynestarraren adierazgarririk handienetakoak, gerra-ekonomia honela definitzen du: “estatu batek bere ekonomia mugiarazteko gerra produkzioari begira egiten duen kontingentzien multzoa” [2]. Are zehatzago, Le Billonek honela deskribatzen du: “Indarkeria mantentzeko baliabideak ekoizteko, mobilizatzeo eta esleitzeko sistema”[3]. Bi definizioak zuzenak baina oso partzialak izanik, gehitu diezaiekegu, labur-labur, gerra-ekonomia gertatzen dela lurralde jakin batek bere industriak berrantolatzen dituenean bermatzeko herrialde baten ekoizpen-ahalmena modu egokian eratzen dela gerra-ahaleginari laguntzeko. Hau da, ikuspegi teknikotik duten ezaugarri historikoaren arabera, gerra-ekonomian estatuek bermatu behar dute baliabideak ahalik eta modu eraginkorrenean esleitzea gerra-ekoizpena bultzatzeko.

Gerra-ekonomiak produkzio potentzuala ahalik eta gehien aprobetxatzea exijitzen zuenez, hau da, baliabide ekonomiko eta eskulan erabilgarri guztiez baliatzea, gerraren beharren arabera ekonomia berrantolatzeak hertsadura politikoaren bidez langileak masiboki mobilizatzea ekarri zuen[4]. Lehen Mundu Gerran eta geroko gerra-ekonomietan gerra-adinean zeuden gizonak, armadako kide izateko errekrutatzeaz gain, zenbait lan egitera behartuta egon ziren horretarako gai ziren gainerako gizon eta emakumeak ere, gerra-makina elikatzeo helburuarekin. Modu horretan, jardunean zegoen langile oro gerran bere ekarpena egitera behartuta zegoen armadan, logistika- eta azpiegitura-beharrizanetan zein arma eta armamentuen ekoizpen masiboan. Horretarako, ezinbesteko kohesio-faktore kulturalak izan ziren bai gerra-propaganda eta baita etsai komunaren porrotari laguntzearen konbentzimendu ideologikoa ere.

**Gerra-ekonomia gertatzen da lurralde jakin batek bere industriak berrantolatzen dituenean bermatzeko herrialde baten ekoizpen-ahalmena modu egokian eratzen dela gerra-ahaleginari laguntzeko**

### KEYNESIANISMOA ETA EKONOMIA-POLITIKA


Behin Lehen Mundu Gerrako gerra-ahalegina amaitu eta gerrarako ekoizpen handiaren beharra atzean utzita, arau bilakatu zen, berriro ere, gainmetaketarako eta erreserbako industria-armada handitzerako joera kapitalista. Gerra-ekonomia amaitzean, gerraren ondoren lan-merkatuan sartu ziren langile guztiei lana emateko ezintasunak eta une hartan erabilgarri zeuden planta, fabrika eta industria guztiak berriro erabiltzeko gaitasun faltak aurretiko baliabide ekonomikoak ahal baino gutxiago erabiltzea ekarri zuten. Horrek esan nahi zuen ekonomia kapitalistak, kapital gisa erabil zitezkeen lan-indarra eta ekoizpen-baliabideak izan arren, ez zituela erabiltzen, metatze-erritmoa ez baitzen haiek prozesuan txertatzeko gai. John Maynard Keynes ekonomialari britainiarra –makroekonomia kapitalistaren sortzailea– izan zen egoeraren berri eman eta horri erantzuten lehena. Izan ere, 20ko hamarkadaren hasieratik, hau da, 30eko depresio handia baino ia hamarkada bat lehenagotik, Keynesek eskala handiko gastu publikoa proposatu zuen Europa langabezia orokorretik ateratzeko bitarteko gisa<sup>[5]</sup>.

30eko hamarkadak gerra-egoerak eragindako egiturazko arazoak ekarri eta orokortu zituen Europan zehar. Estatuak, gerra-garaiko gastuek beren aurrekontu ahalmena alde handiz gaintu zuten, beren defizitak finantzatu zituzten, zor-bonuen jaulkipen masiboaren bidez dirua eskatuz. Gerra-ekoizpena finantzatzeko estatuak sortutako zor handia oso arazotsua izan zen Europako gerraosteko aldirian. Gerra aurretik eta bitartean bizi izandako enplegu osoko egoera ekonomikoa eta jardura ekonomiko handia desagertuak ziren. Gainera, zorrari aurre egiteko beharraren ondorioz, inflazio altuaz gain zerga-presio handia zuen egoera orokortu zen. 29ko kraketik hiru urtera –gertakari horrek ere geldialdi ekonomikoko egoera hori areagotu zuen–, Europako ekonomia nagusiek beraien BPGa bi digituko zifretara murrizten ikusi zuten.

**Keynesentzat, kontsumo publikoaren bidez ekonomiaren eskari agregatua handitzea zen langabezia atzean uzteko eta ekoizpen-baliabideen aurretiko erabilera berreskuratzeko irtenbidea**



## Ekonomia gerra-ekoizpenera bideratzen denez, gerra-ekonomia kontsumoaren araberakoa izaten da



Testuinguru horretan gauzatu zuen Keynesek bere Teoria Orokorra. Nahiz eta onartu merkatu-mekanismoak ez zirela gai ekonomia kapitalistaren oreka mantentzeko, hori estatuak eragile ekonomiko gisa esku hartuz konpon zitekeela ere defendatzen zuen. Keynesentzat, kontsumo publikoaren bidez ekonomiaren eskari agregatua handitzea zen langabezia atzean uzteko eta ekoizpen-baliabideen aurretiko erabilera berreskuratzeko irtenbidea. Horrela, haren teorian, merkatu-ekonomia eta politika fiskal eta monetario egokiak aplikatuz gobernuak eskain dezakeen planifikaziorako laguntzak gai izan litezke krisiak konpontzeko eta, hasiera batean, ekoizpen kapitalistaren etengabeko hazkundeari eusteko<sup>[6]</sup>.

Keynesianismoa, beraz, doktrina ekonomiko nagusi gisa gailentzeko zorian zegoen. Izan ere, ikuspegi praktikotik, Hitlerren 1933ko “berrarmatze masiboko programak” erakutsi zuen –gobernuaren ekonomia planifikatzeko modu gisa oso arrakastatsua izan zitekeela gastu publikoa: urtebetean, Alemania Lehen Mundu Gerrako langabezia masibotik gerra-ekonomiako enplegu osora igaro zen<sup>[7]</sup>. 40ko hamarkada politika keynesiarren esperimendazio orokorraren garaia izan zen. Atlantikoaren alde bateko eta besteko gobernuak –batez ere britainiarra eta estatubatuarra–, ziurgabetasun politiko eta belikoko testuinguru horretan, langabezia tasaren ondorio politikoen beldur ziren, oraindik ere altua baitzen tasa hori; ondorioz, estatuko gerra-makina martxan jarri zuten berriro. Estatu Batuetan, gobernuak planifikatutako gerra-ekonomiako gastu militarren igoera izugarriaren eta indar armatuen tamainaren hazkunde itzelaren ondorioz –1939an 300.000 soldadu izatetik 1945ean 12,2 milioi izatera igaro zen, biztanleriaren %8,7 gehiago–, langabezia maila baxua lortzeko modua izan zen.

## Depresioaren hasieran merkatu-sistemaren arazo ekonomikoetarako konponbide posible gisa agertu zena orain inperialismo kapitalistaren kausa gehigarri gisa azaltzen da


Horrela, planifikatutako gastu publikoa –gerra-ekonomia da haren adierazgarririk esanguratsuenak eskaria masiboki handitzeko mekanismoa izan zen. Armamentuan eginko gastu masiboaren eta indar armatuen errekrutatzearen eraginez, lan-indar guztia enplegatzea lortu zen. Gainera, kapital pribatuak bere ekoizpena gastu publikoari esker areagotzea lortu zuenez, estatuak indusitutako ekoizpena onuragarria zen metaketarako<sup>[9]</sup>. Modu horretan, estatuak zuzendutako ekoizpenaren helburua ekoizpen soziala sustertzea zen. Hala ere, gerra-ekonomia ez da soilik estatuak helburu belikoekin indusitutako ekonomia; horrez gain, Kaleckik ondo deskribatu zuen bezala<sup>[9]</sup>, krisiaren alternatiba ere bada, kapitalaren gainmetaketa xurgatzeko bitartekoa baita. Gerra-ekonomia, beraz, kapitalismoaren kontraesanak une batez baretzeko bitarteko gisa agertzen da.

Baina gerra-ekonomia baldintza jakin batzuetan bakarrik da posible, eta bi faktoreren menpe dago. Batetik, ekonomia gerra-ekoizpena bideratzen denez, gerra-ekonomia kontsumoaren araberakoa izaten da. Hau da, gerra-ekonomia posible da kontsumoa murrizten denean eta gerrari loturiko ekoizpenarekin zerikusirik ez duten sektoreetako kapital-inbertsio berriak murrizten direnean. Egoera hori posible bihurtzeko, beharrezkoa da batetik hertsadura, eta bestetik konbentzimendua, hau da, jendea sinetsaraztea etsaia garaitzeko beharrezkoa dela bizi-baldintzak okertzea; hortaz, gerra-egoera orokor baten bidez soilik da hori iraunkorra denboran. Bestalde, gerra-ekonomia zorpetzearen bidez gauza daiteke, hau da, etorkizunean zorra ordaintzeko eman beharreko baliabideen kontura.

Hala ere, aurreko bi gerretan bizi izandako egoerarekin alderatuta, industria militarren eta gerra-ekonomiaren eginkizuna hazi baino ez da egin gaur egun. Gerra-ekonomiak, modu ez hain esplizituan itzuli bada ere, gero eta presentzia handiagoa du Europan eta munduko beste leku batzuetan, modu erdi-iraunkorrean. 1969an Mattickek gerra-ekonomiari buruz idatzitako hitzek indarrean jarraitzen dute: depresioaren hasieran merkatu-sistemaren arazo ekonomikoetarako konponbide posible gisa agertu zena orain inperialismo kapitalistaren kausa gehigarri gisa azaltzen da. ●







### ERREFERENTZIAK

- [1] Foster, J. B. (2015). *El nuevo imperialismo*. El viejo topo.
- [2] Galbraith, J. K. (2001). "The Meaning of a War Economy." *Challenge* 44 (6):5-12.
- [3] Le Billon, P. (2004). "The Geopolitical Economy of Resource wars." *Geopolitics* 9 (1):1-28.
- [4] Gerstenberger, H. (2022). *Market and Violence: The Functioning of Capitalism in History*. Brill.
- [5] Shaikh, A. (2016). *Capitalism: Competition, conflict, crises*. Capítulo 12. Oxford University Press.
- [6] Mattick, P. (1978). Marxismo: ayer hoy mañana. En Mattick, P. (2023), *Colapso y Revolución*. Traficantes de sueños
- [7] Wapshott, N. (2016). *Keynes vs Hayek: el choque que definió la economía moderna*. Deusto.
- [8] Mattick, P. (1984). "La crisis mundial y el movimiento obrero". *Etcetera* 2: 61-68
- [9] Kalecki, M. (1972). *The Last Phase in the Transformation of Capitalism*. Monthly Press



---

Argitalpena  
**2024KO MAIATZA**  
EUSKAL HERRIA

---

Koordinazioa,  
erredakzioa  
eta diseinua  
**GEDAR LANGILE  
KAZETA**

---

Web  
**GEDAR.EUS**

---

Sare sozialak  
TWITTER ETA  
INSTAGRAM  
**@ARTEKA\_GEDAR**

---

Kontaktua  
**HARREMANAK@  
GEDAR.EUS**

Harpidetza  
**GEDAR.EUS/  
HARPIDETZA**

---

Edizioa  
**ZIRRINTA  
KOMUNIKAZIO  
ELKARTEA**  
AZPEITIA

---

Lege gordailua  
**SS-01360-2019**

---

ISSN  
**2792-4548**

---

Lizentzia





